



**“HEZKUNTZA ESKUBIDEA BERMATZEKO PROGRAMA:
Eskolagabetzea eta eskola-absentismoa eraztea Bizkaiko lurraldean”
DELAKOAN AURREIKUSITAKO JARRAIPEN BATZORDEAREN TXOSTENA**

2017-2018 IKASTURTEA

**HEZKUNTZA SAILA
(Bizkaiko Lurralde Zuzendaritza)**

**FORU ALDUNDIA
(Gizarte Ekintza Saila)**

EUDEL

AURKIBIDEA

1	SARRERA	3
2	PROGAMAREN HELBURUAK	4
3	DATUEN BILKETA	5
	3.1 HONAKO TERMINO HAUEN DEFINIZIO OPERATIBOA: ESKOLAGABETZEA ETA ESKOLA-ABSENTISMOA.....	5
	3.2 DATUEN BILKETAN ERABILITAKO PROZEDURA.....	6
4	ABSENTISMOAREN ETA ESKOLAGABETZEAREN ARAZOAREN DIMENTSIOA BIZKAIKO LURRALDEAN	7
	4.1 OINARRIZKO IRAKASKUNTZA (LEHEN HEZKUNTZA ETA DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA).....	7
	4.1.1 Portaera absentista duten ikasleen kopuru osoa:.....	7
	4.1.2 Portaera absentista duten ikasleen banaketa, zentroaren titulartasunaren eta hezkuntza-etaparen arabera.....	8
	4.1.3 Ikasle eskolagabetuak.....	9
	4.1.4 Absentismo metatua. Hutsegiteen ehunekoa ikasturtean zehar.....	9
	4.1.5 Absentismo zuzendua.....	12
	4.1.6 Udaleko Gizarte Zerbitzuetara, Foru Aldundira eta Fiskaltzara bideratutako espedienteen kopurua.....	13
	4.2 HAUR HEZKUNTZA.....	13
	4.3 IKASLE ABSENTISTAK OINARRIZKO LH-N.....	14
	4.4 ABSENTISMOAREN BANAKETA IKUSKAPEN-EREMUEN ARABERA... ..	15
	4.5 IKASTETXE KALTETUEN KOPURUA.....	16
5	ESKOLA-ABSENTISMOA HEZKUNTZA-IKERKETAREN ARGITAN	17
	5.1 2017-2018 IKASTURTEKO ABSENTISMOARI BURUZKO JARDUNALDIA	17
	5.2 BESTE IKASTARO BATZUETAKO AIPAMENAK.....	21
6	LAN-TALDEETAKO AKTETAN JASOTAKO ABSENTISMOARI BURUZKO JARDUNALDIAN PARTE HARTU ZUTEN PERTSONEN IRITZIA	29
7	ONDORIOAK-SINTESIA	33
8	HOBETZEKO PROPOSAMENAK	37
9	ESKER ONA	39
	9.1 .ERANSKINA.....	40
	9.2 II. ERANSKINA.....	43

1 SARRERA

“Hezkuntza eskubidea bermatzeko Programa: eskolagabetzea eta eskola-absentismoa erauztekoa Bizkaiko lurraldean” egitasmoan aurreikusita dagoen Jarraipen Batzordeak iragan hamalau ikasturteetan zehar txostenak egin zituen Programa horretan parte hartzen duten hiru Erakundeen jokabideari buruz; hona hemen erakundeok: Hezkuntza Saila (Bizkaiko Lurralde Ordezkaritza), Bizkaiko Foru Aldundia (Gizarte Ekintza Saila) eta EUDEL (Euskal Udalen Elkarte). Txosten horien bitartez jakin ahal izan da absentismoaren eta eskolagabetzearen dimentsioa Bizkaiko Lurraldeko Oinarrizko Hezkuntzako ikasleei (Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza) dagokienez, baita Haur Hezkuntzako etapako bigarren zikloari (3-6 urte) dagokionez ere. Bestalde, parte hartzen duten pertsonen iritzia ere jaso da, faktore hori funtsezkoa baita hobetzeko proposamenik egokienak ezartzeko xedez.

Jarraian aurkezten den txostenak, Programa ezarri zenez geroztik hamabosgarren urteari dagokionak, absentismoaren eta eskolagabetzearen dimentsioaz gain, horiek izandako bilakaera ere erakutsi nahi du. Izan ere, aurreko ikasturteetan jasotako datuek erreferentzia gisa balio dute konparaketak ezarri ahal izateko. Konparaketa horien emaitza gisa esan daiteke ikasle absentisten kopuruak gorakada txikia izan duela aurreko ikasturtearekin alderatuta. Hala ere, datuak zehatzago aztertuta ikusten denez, behera egin du ikastetxe publikoetako Lehen Hezkuntzan eta ikastetxe pribatu itunduetako Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan.

Ikasturte honetan, 2015-2016 ikasturtean egin zen moduan, Oinarrizko Lanbide Heziketa ikasten ari diren 15 urteko ikasleei buruzko datuak gehitu dira.

Horrek guztiak indarra ematen digu benetan lanari gogotsu ekiteko, arazo hori ezabatze aldera. Bestalde, pentsatzen dugu ikastetxera sarritan eta modu iraunkorrean ez joateak nabarmen oztopotzen duela ikasleen garapen pertsonala, soziala eta akademikoa, eta epe luzean horrek baztertzea eta gizartetik kanporatzea eragiten duela.

Gainera, aurreko ikasturteetan esaten genuenez, urteotan zehar bizitako esperientziak, jardunbide onen azterketak eta azterlan konparatuek agerian jartzen dute eskola-absentismoa beste arazo batzuen “detektagailu” ona izan daitekeela, hala nola tratu txarra, berdinen arteko erasoena eta osasun arazoena. Horrek, bestalde, berretsi egiten du berehala jokatu beharra dagoela, arazoa antzeman bezain pronto.

Azken hamabost urtean eginiko lanari esker, eskola-absentismoaren gaineko jakintza ona lortu dugu. Izan ere, txikia bada ere, kezkatu egiten gaitu, gure helburua baita ikasle batek ere ez izatea portaera hori. Hala eta guztiz ere, aipaturiko ahalegin horri beste bat batu zaio, hau da, Oinarrizko Hezkuntzako ikasleak ikastetxera motibatuta eta interesatuta joatea. Portaera absentistari buruzko azterlanean antzeman dugunez beste portaera bat dago, “ausentismoa” deritzoguna: eskolara joan arren, bertan parte hartzen ez duten ikasleak dira, eta ez dute jokabide aktiborik ikasketen inguruan.

Ikasturte honetan, Bilbon apirilaren 26an eginiko jardunaldik partaideen iritzia sartu da.

Helburu horri ere erantzun nahi zioten Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailburuak, Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintzako Diputatuak eta EUDELeko Gizarte Gaien arduradunak, 2003ko apirilean, “*Hezkuntza eskubidea bermatzeko Programa: eskolagabetzea eta eskola-absentismoa erauztea Bizkaiko lurraldean*” egitasmoa aurkeztu zuten, hiru erakundeek adostua, eta erakunde horik eguneratu eta onetsi zuten 2015eko apirilean.

Helburuen lorpena egiaztatze aldera eta parte hartzen duen erakunde bakoitzari hobekuntzako jarraibideak eskaini ahal izateko, programak berak jarraipen batzorde bat egotea aurreikusten du. 2017-2018 ikasturteari dagokion txosten honek Jarraipen Batzordeak bere gain hartu dituen eginkizunak betearaztea du helburu.

2 PROGAMAREN HELBURUAK

Hona hemen programa hau abian jarrita lortu nahi diren helburuak:

- Derrigorrezko eskolatzeko-adietan dauden adingabeen hezkuntzarako eskubidea bermatzea, eskolagabetzea eta eskola-absentismoa saihestuta.
- Haurraren edo nerabearen prestakuntza beharrianetarako hainbat mailatako arriskua dakarten egoerak zuzentzea.
- Matrikulatuta dauden 3 urtetik 6ra bitarteko haurren eskolaratzea bultzatzea.
- Gai horren larritasunari buruz sentsibilizatzea profesionalak, gizartea (oro har) eta zeregin horretan zuzenean diharduten pertsonak, bereziki.
- Bertan esku hartzen duten erakundeek (Hezkuntza Saila, Enplegu eta Gizarte Politiken Saila, udalak, Bizkaiko Foru Aldundia eta Fiskaltza) koordinatuta lan egitea, eskolagabetzea eta eskola-absentismoa prebenitzeko eta bi horien aurka esku hartzeko.
- Eskolagabetze-egoera, eskola-absentismoaren egoera eta abian jarri diren esku-hartzeen bilakaera baloratzea.

Txosten honetako atalek erantzuna eman nahi diete formulatutako helburuei, bereziki arazoaren dimentsioa zehazten saiatzen bada ere; izan ere, zenbat eta hobeto ezagutu, orduan eta egoera hobean egongo gara esku-hartzeak eraginkorragoak izan daitezten eta, azken batean, arazoa konpon dadin.

3 DATUEN BILKETA

3.1 HONAKO TERMINO HAUEN DEFINIZIO OPERATIBOA: ESKOLAGABETZEA ETA ESKOLA-ABSENTISMOA

Txosten honetan aurkezten diren datuak interpretatu ahal izateko, “eskolagabetzea” eta “eskola-absentismoa” terminoen definizio operatiboa bildu da, 2015eko apirilean onetsitako programa berriaren arabera:

- **Eskolagabetzea:** Nahitaez eskolatuta egon behar duten adinean (6-16 urte) egon arren, ikastetxe batean matrikulatu gabe dauden adingabeen egoerari dagokio.
- **Eskola-absentismoa:** Eskola-absentismoa deritzo batere justifikaziorik gabe ikastetxera era jarraituan ez joateari, familiak berak onartuta edo bultzatuta edo ikaslearen beraren gogoz, aurrenerabe eta nerabeen kasuan. Haurrek nahitaez 6 urtetik aurrera eskolaratu behar badira ere, EAEn 3 urtetik aurrera eskolaratzen dira normalean, eta, beraz, prebentzio izaeraz eta izan daitezkeen aldeak parekatzeko, matrikulatuta dauden Haur Hezkuntzako 2. ziklotik aurrera aplikatuko da absentismo kontzeptua. Horregatik, absentismoa Oinarrizko Irakaskuntzan edo Haur Hezkuntzan gertatzen denean, esku hartzeko modua desberdina izango da: azken kasu horretan, datuak ez dira Fiskaltzara igorriko, eta adin horretatik aurrera haurren eskolaratzea sustatzeko helburuarekin erabiliko dira, batez ere gizartean egoerarik okerrenean dauden herritarren kasuan.

Kontzeptu horren definizio operatiboan, lau termino hauek bereiziko dira.

- **Absentsimooa-tasa:** hilabetean justifikatu gabeko hutsegiteen ehunekoa da. Honela zenbatuko da eskola-absentismoaren tasa: Hutsegite bat eskola egun osoari dagokio, eta beraz, soilik goizez edo arratsaldean joan ez bada, egun erdiz, hutsegite erdiz hartuko. Baldin eta justifikatu gabeko hutsegiteak saio solteei badagozkie, ikastetxeak haiek batuta zenbatuko du hilabete osoan zehar huts egindako egunei dagokien zenbatekoa (Txosten honetan absentismoa justifikatu gabeko hutsegiteen % 20 edo gehiago gisa hartzen da).
- **Absentismo metatua:** ikasturteko eskola-egun guztiak (175) kontuan hartuta izandako hutsegiteen ehunekoa da. Proposatutako programan absentismoa hutsegiteak metatzeko honako tarte hauetan identifikatu da:
 - ✓ Gehienez %10
 - ✓ >%10-%25
 - ✓ >%25-%50
 - ✓ >%50-%75
 - ✓ >%75-%100

- **Absentismo zuzendua:** ikasturte batean ikasle absentista izanda, hurrengo ikasturtean egoki eskolatzen diren ikasleen kopurua eta ehunekoa. (Txosten honetan, absentismo zuzendutzat jotzen da gutxienez 2018ko apirilean, maiatzean eta ekainean absentismo erregistroak izateari uzten dionean).
- **Absentismo-indizea:** Ikastetxeko ikasle guztien artetik eskolara agertzen ez diren ikasleen ehunekoa da. Indize hori hezkuntza-etapen arabera zehaztuko da. Indize handiko ikastetxeetan modu berezian jokatu ahal izateko erabili ahal izango da indize hori.

3.2 DATUEN BILKETAN ERABILITAKO PROZEDURA

Programan ezarritako protokoloa bete da. Ikasturte honetan, aurrekoan bezala, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila “Notak eta Faltak” aplikazio informatikoa erabili da. Hil bakoitza amaitutakoan, ikastetxe guztiek (hileko absentismo erregistroak izan dituztenak zein ez) aplikazio informatiko hori bete behar izan dute, eta, hori ixtearekin batera, zuzenean bidaltzen zaie Hezkuntza Ikuskaritzari eta udalei. Aplikazio hori abiarazteak datuen bilketaren kontrola hobetzen jarraitu du, hileroko ikastetxe guztiek (eskola-absentismoa dutenak zein ez) hori itxi behar baitute.

Erregistroak jaso eta gero, ikastetxeko ikuskariak aztertzen ditu. Gainera, matrikulatzeko datuetarako aplikazio informatikoari esker, aurreko ikasturtean EAEen matrikulatuta zeuden ikasleak ikasturte honetan ere matrikulatuta ote dauden egiaztatu ahal da, ikasturte hasieran bertan.

4 ABSENTISMOAREN ETA ESKOLAGABETZEAREN ARAZOAREN DIMENTSIOA BIZKAIKO LURRALDEAN

4.1 OINARRIZKO IRAKASKUNTZA (LEHEN HEZKUNTZA ETA DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA)

4.1.1 Portaera absentista duten ikasleen kopuru osoa:

Absentismo erregistroen kopurua osoa 1.870 da. Kopuru hori Oinarrizko Irakaskuntzako ikasleen % 1,7 da.

Iazko ikasturtearen aldean, berdintsu eutsi zaio portaera absentista duten edo eskolagabetuta dauden ikasleen kopurua osoari (22 kasu gehiago), zeren eta Oinarrizko Hezkuntzan matrikulaturiko biztanleekiko ehuneko berari eutsi baitzaio.

Sexuaren arabera banatuz gero, absentismo eta eskolagabetze erregistroren bat duten ikasleen datuak honako hauek dira: 906 neska (%48,4) eta 964 mutil (%51,6).

1.870 absentismo kasuetatik 1.082tan ikus daiteke ikasturtean zehar justifikatu gabeko absentziak ez direla % 10era iristen. Mota horretako portaera “ohikoa ez den absentismo edo aldizkako absentismo”tzat har daiteke, kasu guztietan ere absentziak ikasturteko hilabete bakarrean gertatzen baitira (normalean irailean, abenduan edo ekainean).


Erregistroen maiztasunari buruzko zehaztasun hori kontuan hartuta, ikus daiteke absentismo kasu guztien (1.870) eta % 10etik beherako absentismo kasuen (1.082) artean 788 kasuko ezberdintasuna dagoela, eta kopuru horrek arazoari buruzko informazio zehatzagoa ematen digu, horiexek baitira ikasturte osoan zehar portaera absentista mantentzen duten kasuak, txosten honen 11. orrialdean jasotzen den legez.

Zifra hori aurreko ikasturtekoaren antzekoa da (24 kasu gehiago).

Hortaz, nahiz eta kopuru absolutuetan absentismo erregistroen kopuru osoari eutsi zaion, jaitziera garrantzitsua ageri da ikasturtean irauten duten absentismo kasuetan

Datuak sexuaren arabera kontuan hartuz gero, aldatu egin da aurreko ikasturteetako joera, mutil kopurua neska kopuru baino handiagoa baita. Kasu honetan, ordea, 788 kasurik larrietatik -%10etik gorako absentismo metatuarekin- 394 neskak dira eta mutilen kopuru bera ageri da.

Ikasle absentisten banaketa sexu aldagaiaren arabera, kopuru absolutuetan eta <%10 deskontatuta



Hauxe izan liteke absentismo erregistroak mantentzearen arrazoia: kontrol zorrotza egin arren -eta horren ondorioz egoera hori jasotzen da gertatzen den unetik beretik-, zerbitzuek egiten duten lana eta jarraipena, eta zehatzago, Lehen Hezkuntzako hasierako mailetako intzidentzia.

4.1.2 Portaera absentista duten ikasleen banaketa, zentroaren titulartasunaren eta hezkuntza-etaparen arabera


Guztira 1.870 ikaslek izan dute portaera absentista. Titulartasunaren eta dauden hezkuntza-etaparen arabera, honela banatzen dira:

I. PUBLIKOAK						I. PRIVATU ITUNDUAK					
LEHEN H			DBH			LEHEN H			DBH		
Ikasleak	Absentist.	%	Ikasleak	Absentist.	%	Ikasleak	Absentistak	%	Ikasleak	Absentistak	%
32.550	880	2,7	17.372	681	3,9	33.336	141	0,4	22.583	168	0,7

Iazko ikasturtearekin alderatuta, absentismoak behera egin du ikasturte honetan ikastetxe publikoetako Lehen Hezkuntzan eta ikastetxe pribatu itunduetako DBHn. Alabaina, igoera txikia egon da ikastetxe publikoetako DBHko portaera absentista duten ikasleen ehunekoan. Datu horiek ikusita, berriz ere esan behar dugu adin goiztiarretan jardun beharra dagoela, betiere DBHn esku hartzen jarraitu beharra ahaztu barik.

Bestalde, aurreko ikasturteetan gertatu den legez, ikastetxe publikoei dagozkien portzentajeak askoz handiagoak dira ikastetxe pribatu itunduetakoak baino, eta horren arrazoiengatik inguruko azalpena ematen da txosten honen 33. orrialdean.

Ikasle absentistaren banaketa sexu aldagaiaren arabera



4.1.3 Ikasle eskolagabetuak

EAEko ikasle eskolagabetuen egoera oso aldizkakoa da. Gainera, familiek beren seme-alabentzat eskola-sistematik kanpoko hezkuntza hautatzean hartzen dituzten erabakiei lotuta dago. Bizkaian, ikasturte honetan, ez da ikasle eskolagabeturik antzeman.

4.1.4 Absentismo metatua. Hutsegiteen ehunekoa ikasturtean zehar

4.1.4.1 Ikastetxe publikoetako ikasle absentistak

LEHEN HEZKUNTZA - PUBLIKOA										
GUZT.	%0 - %10		>%10 - %25		>%25 - %50		>%50 - %75		>%75-%100	
	K	%	K	%	K	%	K	%	K	%
880	584	66,4	187	21,2	67	7,6	17	1,9	25	2,8

Aurreko ikasturtearen aldean, Lehen Hezkuntzan 33 ikasle absentista gutxiago egon dira ikastetxe publikoetan.

Taula honetan ikus daitekeenez, Lehen Hezkuntzako ikasle absentisten ehunekorik handiena (% 66,4) ikastetxe publikoetan % 10erainoko tartean kokatzen da, eta horrek ohikoa ez den edo aldizkakoa den absentismoa dakar.

Ikastetxe publikoetako Lehen Hezkuntzako absentisten kopuru osoari (880) 584 kentzen badizkiogu, noizbehinkako absentismo kasuak omen direlako, **296** absentista izango genituzke, eta arazoaren errealitatea hobekien erakusten duen zifra dela uste dugu. Aurreko ikasturtearen aldean, 3 ikasle gehiago izatea dakar.

Ikus dezagun absentismo metatuaren egoera zein den ikastetxe publikoetako DBHn, tarteka:

BIGARREN HEZKUNTZA - PUBLIKOA										
GUZT.	%0 - %10		>%10 - %25		>%25 - %50		>%50 - %75		>%75-%100	
	K	%	K	%	K	%	K	%	K	%
681	354	52	165	24,2	88	12,9	42	6,2	32	4,7

Aurreko ikasturtearen aldean, Bigarren Hezkuntzan 70 ikasle absentista gehiago egon dira ikastetxe publikoetan.

Taula honetan ikus daitekeenez, Bigarren Hezkuntzako ikasle absentisten ehunekorik handiena (% 52) ikastetxe publikoetan % 10erainoko tartean kokatzen da, eta horrek ohikoa ez den edo aldizkakoa den absentismoa dakar.

Ikastetxe publikoetako Bigarren Hezkuntzako absentisten kopuru osoari (681) 354 kentzen badizkiogu, noizbehinkako absentismo kasuak omen direlako, **327** absentista izango genituzke, eta arazoaren errealitatea hobekien erakusten duen zifra dela uste dugu. Aurreko ikasturtearen aldean, 22 ikasle gehiago izatea dakar.

4.1.4.2 Ikastetxe pribatu itunduetako ikasle absentistak

LEHEN HEZKUNTZA - PRIBATUA										
GUZT.	%0 - %10		>%10 - %25		>%25 - %50		>%50 - %75		>%75-%100	
	K	%	K	%	K	%	K	%	K	%
141	75	53,2	31	22	18	12,8	10	7,1	7	4,9

Aurreko ikasturtearen aldean, Lehen Hezkuntzan 224 ikasle absentista gehiago egon dira ikastetxe pribatu itunduetan.

Taula honetan ikus daitekeenez, Lehen Hezkuntzako ikasle absentisten ehunekorik handiena (% 53,2) ikastetxe pribatu itunduetan % 10erainoko tartean kokatzen da, eta horrek ohikoa ez den edo aldizkakoa den absentismoa dakar.

Ikastetxe pribatu itunduetako Lehen Hezkuntzako absentisten kopuru osoari (141) 75 kentzen badizkiogu, noizbehinkako absentismo kasuak omen direlako, **66** absentista izango genituzke, eta arazoaren errealitatea hobekien erakusten duen zifra dela uste dugu. Aurreko ikasturtearen aldean, 19 ikasle gehiago izatea dakar.

Ikus dezagun absentismo metatuaren egoera zein den ikastetxe pribatu itunduetako DBHn, tarteka:

BIGARREN HEZKUNTZA - PRIBATUA										
GUZT.	%0 - %10		>%10 - %25		>%25 - %50		>%50 - %75		>%75-%100	
	K°	%	K°	%	K	%	K	%	K	%
168	69	41,1%	42	25%	36	21,4%	14	8,3%	7	4,2%

Aurreko ikasturtearen aldean, Bigarren Hezkuntzan 37 ikasle absentista gutxiago egon dira ikastetxe pribatu itunduetan.

Taula honetan ikus daitekeenez, Bigarren Hezkuntzako ikasle absentisten ehunekorik handiena (% 41,1) ikastetxe pribatu itunduetan % 10erainoko tartean kokatzen da, eta horrek ohikoa ez

den edo aldizkakoa den absentismoa dakar.


Ikastetxe pribatuetakoa Bigarren Hezkuntzako absentista kopuru osoari (168) 69 kentzen badizkiogu, noizbehinkako absentismo kasuak omen direlako, **99** absentista izango genituzke eta arazoaren errealitatea hobekien erakusten duen zifra dela uste dugu. Aurreko urtearen aldean, 20 kasu gutxiago izan dira.

**Ikasle absentisten banaketa,
% 10etik beherako absentismo metatua kenduta**

IKASTETXE PUBLIKOAK						IKASTETXE PRIBATU ITUNDUAK					
LEHEN H			DBH			LEHEN H			DBH		
Ikasleak	Absentist.	%	Ikasleak	Absentist.	%	Ikasleak	Absentist.	%	Ikasleak	Absentistak	%
32.550	296	0,9	17.372	327	1,9	33.336	66	0,2	22.583	99	0,4

Taula hori 4.1.2. puntuakari lotuta dago, noizbehinkako absentismoa adierazten duen % 10etik beherako absentismo metatua kendu delako. Horrela agerikoagoa da arazoaren larritasuna.


Ikasle absentistaren banaketa, %10etik beherako absentismoa metatua ezabatuta, sexu aldagaiaren arabera



Grafiko hori 4.1.2. puntuakari lotuta dago, % 10etik beherako absentismo metatua kendu ondoren. Hori dela eta, hobeto islatzen du arazoaren dimentsioa.

Bi puntuen arteko erlazio hori argiago ikusten da hurrengo grafikoan:

**Ikasle absentista guztien banaketa %10etik beherakoa
kenduta, sexu aldagaiaren arabera**



4.1.5 Absentismo zuzendua

IKASTETXE PUBLIKOAK				IKASTETXE PRIVATU ITUNDUAK			
LEHEN H		DBH		LEHEN H		DBH	
Absentista kop.: 880		Absentista kop.: 681		Absentista kop.: 141		Absentista k.: 168	
Zuz. kop.	%	Zuz. kop.	%	Zuz. kop.	%	Zuz. kop.	%
437	49,6	281	41,3	77	54,6	65	38,7

Aurreko taulako datuek absentista izateari uzten dioten edo gutxienez ikasturteko azken hiruhilekoan absentistak ez diren ikasleen kopuru absolutu eta portzentajeen berri ematen digute. Hauexek izan daitezke absentismo horren zuzenketaren zioak: erakundeek arazo hori gainditzeko egindako esku-hartzeak, edota portaera absentista eragin bide duen egoeraren araberrako inguruabarra desagertzea; izan ere, absentismoaren definizio operatiboaren barruan sartzen dira hainbat zioengatik egunen % 20an justifikatu gabe huts egiten dutenak, hilabete batean bakarrik gertatu arren.

Datu horien bidez ikus dezakegu arazoaren dimentsiorik larriena, hots, esku-hartze guztiak gorabehera ikasturtean zehar portaera absentistari eusten diotenena. Kopuru hori ateratze aldera, aurreko taulako datuak kentzen zaizkie txosten honetako 4.1.2 atalean daudenei, eta Lehen Hezkuntzako 507 ikaslera heltzen da (% 0,7) eta DBHko 503 ikaslera (% 1,2). Aurtengo ikasturtean aurreko ikasturtean baino kasu gutxiago zuzendu dira.

4.1.6 Udaleko Gizarte Zerbitzuetara, Foru Aldundira eta Fiskaltzara bideratutako espedienteen kopurua

	Bideratutako espedienteen kop.	% (1)	% (2)
Udalaren Gizarte Zerbitzuak	1.423 (3)	76,1	0,9
Foru Aldundia	17	0,9	0,01
Fiskaltza	51	2,7	0,04

(1) Absentismo kasu guztien gaineko %.Fiskaltzaren kasuan ehunekoa derrigorrezko irakaskuntzaren egoeraren gainean bakarrik egiten da.


(2) Derrigorrezko irakaskuntzako eta Haur Hezkuntzako bigarren zikloko ikasle guztien gaineko %. Fiskaltzaren kasuan, egoera horren gaineko ehunekoa soilik DBHn egiten da.

(3) Ikastetxeek aplikazio informatikoaren bidez emandako informazioa.

4.2 HAUR HEZKUNTZA

IKASTETXE PUBLIKOAK			IKASTETXE PRIBATUAK		
Ikasleak	Absentistak	%	Ikasleak	Absentistak	%
19.774	419	2,1	18.785	51	0,2

Haur Hezkuntzako 2. zikloari dagozkion datuak eskaintzen dira, derrigorrezko maila izan ez arren, uste delako hasiera-hasieratik egoera horiek identifikatzea garrantzitsua dela eskolatzea sustatzeko, gizartearen aldetik ahulak diren herriguneeen kasuetan batez ere. Hezkuntza-etapa horretan, aurreko ikasturtearen aldean, absentisten kopurua zertxobait murriztu da bai ikastetxe publikoetan bai pribatuetan.




4.3 IKASLE ABSENTISTAK OINARRIZKO LH-N

Jarraian, Oinarrizko Lanbide Heziketako ikasle absentistek buruzko datuak agertzen dira. Hala ere, hezkuntza-etapa horretan, hezkuntzarako eskubideari dagokionez, 16 urtetik beherako ikasleen, hau da, 15 urte izanda LHn sartu direnen absentismoa jaso da. Honetan ere ikastetxeen tipologia aldatzen da: ikastetxe publikotzat jotzen dira Hezkuntza Sailaren mendekoak eta “bestelako”tzat, berriz, erakunde publikoen (adibidez, udalak) mendekoak eta pribatuak.

IKASTETXE PUBLIKOAK			BESTELAKO IKASTETXE ITUND.		
Ikasleak	Absentistak	%	Ikasleak	Absentista	%
0	0	0	351	60	17,1

Taula hau irakurri ondoren, bi alderdi nabarmendu behar dira: bigarrena, berriz, hauxe da: DBH amaitu baino lehen Oinarrizko LHn sartzen diren ikasle asko absentistak dira hezkuntza-etapa horretan, eta, daukaten adina kontuan hartuta, jokabide hori zuzendu ezean, eskola-uzte goiztiarreko zerrendetan agertuko dira; eta are garrantzitsuagoa dena: hezkuntza-sistemak ez du lortu eskola-porrotaren bere historia bideratzea, hainbat alternatiba erabili arren. Horregatik guztiagatik, absentismoa hasieratik saihesteko asmoz, adin goiztiarretan lan egiten jarraitzeaz gain, Oinarrizko LH da lehentasunezko esku-hartzea hartu beharko duen beste eremu bat.

Aurreko datuak hurrengo grafikoan islatzen dira:




4.4 ABSENTISMOAREN BANAKETA IKUSKAPEN-EREMUEN ARABERA

Guztira	Eremuak			
	1	2	3	4
144.751 (1)	28.919 (%20)	34.029 (%23,5)	46.025 (%31,8)	35.778 (%24,7)
2.400 (2) (%1,66)	99 (%4,1)	157 (%6,5)	1.384 (%57,7)	760 (%31,7)
Absentismo- indizea	(%0,34)	(%0,46%)	(%3)	(%2,1)

- (1) Guztizko horretan Bizkaiko lurraldeko Oinarrizko Irakaskuntzako (Lehen Hezkuntza eta DBH), Haur Hezkuntzako bigarren zikloko eta Oinarrizko Lanbide Heziketako (15 urtekoak) ikasle guztiak zenbatzen dira. Guztizko hori lau ikuskapen-eremutan banatzen da taulak adierazten duen bezalaxe. 1. eremua Durangaldea, Lea-Artibai eta Busturialdeari dagokie. 2. eremua Uribe eskualdeari. 3. eremua, Bilbo eta Goi Nerbioiri, eta 4. eremua, aldiz, Ezkerraldea, Meatzaldea eta Enkarterri.
- (2) Bizkaiko Oinarrizko Irakaskuntzan (Lehen Hezkuntza eta DBH), Haur Hezkuntzan eta Oinarrizko Lanbide Heziketan (15 urtekoak) portaera absentista duten eta eskolagabetuta dauden ikasleen guztirako kopurua da.

Ikus daitekeenez, banaketa hori ez da berdintsua eremu guztietan. Aitzitik, batez ere 3. eta 4. eremuetan biltzen da.



4.5 IKASTETXE KALTETUEN KOPURUA

IKASTETXE PUBLIKOAK			IKASTETXE PRIBATU ITUND.		
GUZTIRA	Kaltetuak	%	GUZTIRA	Kaltetuak	%
230	161	70	146	83	56,8

Portaera absentista agertzen duten 6 ikasle edo gehiago dituzten ikastetxeak

IKASTETXE PUBLIKOAK			IKASTETXE PRIBATU ITUND.		
GUZTIRA	Kaltetuak	%	GUZTIRA	Kaltetuak	%
230	82	35,6	146	23	15,7

Bigarren taula horretako kopuru eta ehunekoek eskola-absentismo arazoaren kaltea duten ikastetxeen irudi errealistagoa eskaintzen dutelakoan gaude; izan ere, lehenengo taulan islatzen dira erregistroren bat izan duten ikastetxe guztiak, ikasle bati dagokion erregistro bakar bat izanagatik ere.

5 ESKOLA-ABSENTISMOA HEZKUNTZA-IKERKETAREN ARGITAN

Aurreko ikasturteko txostenean egin zen legez, bi zatitan bereizten da atal hau. Lehenengoan, apirilaren 26ko jardunaldian bildutako funtsezko ideiak laburbilduko dira. Jardunaldiaren leloa: “Absentismoa aztertzea eskola inklusiboaren esparruan”. Ángel Almaraz eta José Javier De Miguel irakasleak jardunaldia dinamizatu zuten “Open Space” metodologiaren bidez, eta bertaraturiko pertsonen iritziak, esperientziak eta kezkek jardunaldiaren ardatza izatea lortu zuten.

Bigarrenean, aurreko txostenen erreferentzia bibliografiko guztiak eta beste jardunaldi batzuen txostenen ondorioz sortutako gogoetak jasotzen dira.

5.1 2017-2018 IKASTURTEKO ABSENTISMOARI BURUZKO JARDUNALDIA

Adituen ekarpenak eta hezkuntzaren eta komunitateko esku-hartzearen eremuetako esperientzien bateratze-lana oinarri hartuta antolatu dira **“eskola-absentismoa”**ri buruzko aurreko urteetako jardunaldiak. Ekarpenek aberasgarriak izan dira. Hala ere, 2017-2018 ikasturteko edizio honetan, uste sendoa dugu honako honetan: “eskola inklusiboak gizarte gune demokratikoak eta parte-hartze izaerakoak eraiki behar ditu, gizarte mailan aberasgarriagoak, ikaskuntza errazteko eta elkarrekin bizitzeko interesa azpimarratzeko, ikasteko, ulertzeko, komunikatzeko, erlazionatzeko, jarduteko eta beste talde batzuek iristeko (Heziberri 2020)”. Egoki iritzi diogu “Bizkaiko eskola-absentismoa”ri buruzko alderdien eraginpean daudela uste duten profesional guztien artean partekaturiko gogoetarako gunea sortzeko erronkari aurre egitea.

José Javier de Miguel eta Ángel Almaraz irakasleek zuzenduta eta “Open Space”¹ metodologiari jarraituta, ikasturte honetako jardunaldian, eskola inklusiboaren esparruko absentismoaren inguruan hitz egitera etortzea erabaki zuten pertsonen eman zitzaizkien nagusitasuna. Parte hartu zuten profesionalak izan ziren benetako protagonistak, egunerokotasunaren, geletan gertatzen denaren, irakasle-taldearen kudeaketaren eta adingabeekiko eta familiekiko zuzeneko esku-hartzearen gaineko adituak.

Gizarte errealitate ikaragarri zaila ulertzeko, esku hartzeko eta eraldatzeko, ezinbestekoak dira guztion ekarpenak, eta hori aintzatestetik sortzen da pentsaerak, ikuskerak eta esperientziak partekatu beharra.

Bat gatoz esatean erakundeak direla (Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila, Bizkaiko Foru Aldundia, Eudel) jardunaldia sustatzen dutenak, baina HEZKUNTZA kontzeptuak **biltzen gaitu**nahi dugun eskola inklusiboaren esparruan.

Etikaren (hezkuntza inklusiboa, aukera etikoa den aldetik), justizia sozialaren, demokraziaren (hezkuntza inklusiboa, gizarte orotan ikustea gustatuko litzaigukeen demokrazia motaren

¹<http://www.cecobi.hezkuntza.net/web/guest/curso-2017-2018>

eredua den aldetik) eta berdintasunaren unibertsoa da hezkuntza, hain zuzen ere hezkuntzari buruzko eztabaidan batzuetan nagusitzen diren merezimenduen, errentagarritasunaren eta eraginkortasunaren logikaren aurka.

Kezkatuta gaude eta lanean dihardugu absentismoaren eta “ausentismoa”ren inguruan: absentzia fisikoa eta mentala, horren kausak eta ondorioak eta ikasleekin eta familiarekin lan egitea.

Maila guztietan protagonismoa, autonomia eta ikasteko nahia sustatzen dituzten metodologiak eraldatu eta sartu beharrak **interpelatzen gaitu**. Eskolako komunitate-eredua izan beharrak interpelatu gaitu, osparekin eta gizarte balioarekin betiere, arlo akademiko hutsetik harago.

Jarraian, honako ondorio hauek nabarmentzen dira:

Hezkuntzaren komunitate-orientabideaz hitz egin da eta behin, eta berriz proposatu da sareko lana bideratu beharra berdintasuneko erantzunak planteatzeko absentismoaren atzean dauden egoera zailetan.

Komunitate-orientazio horrek zalantzan jartzen du ikastetxeen rola eta irakaslearen rola erkidegoaren arazoan eta lehenetsuen testuingururik zabalenean. Helburua ez da soilik hezkuntzako emaitzetako desberdintasunei aurre egitea, baizik eta gizartearen desberdintasunei ere aurre egitea.

Ildo horretan daukagu eskolak ikasteko erkidegotzat proposatzea, erkidego osoaren elkarrizketa behar delako eskola-proiektua eraikitzeko. Erkidego horietan, eskolak ikasleak prestatu eta hezi beharra planteatzen da ingurunean txertatzeko, baita eskola barruko sareko lana proposatzen duten beste batzuk ere, hain zuzen lan hori desberdintasunei aurre egiteko partekaturiko bidea den aldetik. Hori guztia ikusita, eskolek betetzen duten eginkizuna berraztertzea behar dago eta zerbitzuak horien inguruan berriz eratu, gizarte eta hezkuntza mailako desabantaileri eta desberdintasunei erantzun hobea emateko.

"Heziberri 2020" Planaren bidez, 2020rako Europako esparruan ezarritako berrikuntza eta garapen ildo estrategikoak bateratzeko ideari eman nahi zaio erantzuna hezkuntzaren eta prestakuntzaren aldetik, gure testuinguruari eta inguruneari datxekien hezkuntza erronkekin, datozen belaunaldiak ondo prestatuta egon daitezen Euskadin eta munduan bizi izateko.

Ildo horretan, lankidetzaren hitzarmenak ezarri behar dituzte toki esparruko ikastetxeek eta kultur, hezkuntza eta gizarte erakundeek, jarduera osagarriak eta eskolaz kanpokoak egiteko, betiere ikaskuntza soziala eta solidarioa sustatuz bizikidetzaren, ingurumenaren iraunkortasuna eta babesa, bide-hezkuntza, etab. bultzatzen dituzten egitasmoen bidez.

Eztabaida-taldeetan proposaturiko ekintzak hezkuntza-erantzutza antolatzeraz daude bideratuta, Heziberri proposatzen duena moduko eskola inklusiboaren esparruan. Erantzun horretan, lehenik eta behin aipa dezakegu hezkuntzaren ikuspegi zabalarekin dagoen konpromisoa; izan ere, erkidegoaren barrukotzat jotzen dira ikastetxeak, dagoeneko azalduta dagoen ideia bere gain hartuta: erkidegoko gainerako kideetatik aparte dagoen eskolak ezin bete ditzakeela hezkuntzak eta gizarte inklusiboak eskatzen dituzten hezkuntza eta gizarte helburuak. Bi zutabe dira esku-hartze horren esparruko oinarriak: erkidegoaren garapena eta

hezkuntzako egiturak eta metodologiak XXI. mendeko gizartearen eskarietara egokitu eta eraldatu beharra.

Azken finean, eskolak eta erkidegoa hobetzeko xedea du komunitatearen garapenak, topagunerako, partaidetzarako eta erabakiak hartzeko berdintasunezko guneak sortuz, betiere gizarte eraldatzeko gai izanik. Prozesu horretan, ikastetxeek konpromiso argia dute eskola hobetzearekin, baina erkidegoa hobetzearekin ere bai. Erkidegoak, hezkuntza eta gizarte prozesuaren barruan egonik, era berean eskola hobetzearekin eta aurrerapenarekin du lotura.

Beraz, berrikuntzak eta komunitate-garapenak elkarren arteko mendekotasuna duen egiturari eusten diote, elkarrekin lotuta dauden hiru mailatan (ikastetxe barruan, ikastetxeen artean eta toki mailan), eta pixkanaka hezkuntza hobekuntzarako eta jarduketarako eremuak zabalduz eta lotuz doaz ikastetxeetatik gizartera eta alderantziz.

Hezkuntza inklusiboa "never ending" prozesua da, etengabe bilakaturik doan bidea, amaierarik gabekoa, eta hezkuntza eta gizarte erkidegoek horretarako joera izan dezakete, baina inoiz ez da egiaz lortzen, baizik eta egunez egun ibili eta eraikitzen da lorpenen eta aurretiazko urratsen gainean. Horrek esan nahi du gizartearen eta hezkuntza inklusiboaren xedea ez dela helmuga, jarraitu beharreko noranzkoa baizik. Era askotara diseinatu daiteke noranzko horretako bidea; ez dago bidea egiteko modu bakarra.

Jardunaldian parte hartu duten pertsonak behetik gora eta barrutik kanpora bideraturiko diseinuaren aldeko apustua egiten dute, erkidego inklusiboaren eraikuntza pentsatzeko. Planteamendu hori bat dator inklusioaren kontzeptuarekin, hots, erkidegoaren parte-hartze "aktiboa eta kritikoa" emendatzeko prozesua den aldetik. Orientabide horretatik eraikiko den aldaketarako proiektuak berekin dakar profesionalak eta herritarrak (irakasleak, gurasoak, ikasleak erkidegoko elkarteak eta erakundeak eta politikariak) kide aktiboak direla aitortzea, ikastetxeen eta erkidegoen eraketan eta eraldaketan parte hartzeko gai direnak, erkidegoak bidezkoagoak eta berdintsuagoak izan daitezten. Ikuspegi horrekin lan egiteak ahalegin handiak eskatzen ditu burutu beharreko ekintzen diseinuan eta garapenean.

Hezkuntza berrikuntzaren ikuspegitik, ikastetxe bakoitzak bere prozesua sortu beharko du eta lehenetsunak zehaztu eta moduak eta estrategiak zehaztuko ditu prozesua burutzeko. Hartara, urteko planetan jasoko dituzte.

Planteamendu metodologiko horren ideia nagusia jarduteko hiru mailatan edo esparrutan dago egituratuta unitate geografiko homogeen baten barruan (herri txikia, auzoa edo barrutia), non elkarren menpekotasunean aurrera egin beharra dagoen: ikastetxearen barruan (ikastetxe beraren barruan), ikastetxeen artean (ikastetxe partaideen artean, ikastetxeen arteko sarea sortuta) eta erkidegoan (inguruko hezkuntza zerbitzuen eta zentroen artean, tokiko sarea eratuta). Jarraitu beharreko prozesuak hauxe izango luke abiapuntua: proiektua ikastetxe bakoitzari eta gizarte eragileei aurkeztea eta proiektuaren helburuen inguruko barne gogoetarako aldia abiaraztea: kontzeptuak argitzeko, egin beharreko lan metodologia zehazteko eta antolaketa-esparrua definitzeko. Irakasleen klaustroari, Eskola Kontseiluari nahiz IGERi aurkeztu beharko litzaieke, eta ondoren, barne eztabaidarako epea zabaldu. Azkenean, ikastetxeak erabakiak hartuko ditu.

Hurrengo urratsa ikastetxe bakoitzean lan-talde egonkorra sortzean datza irakasleen inguruan, proiektua koordinatu, bideratu eta jarraitzeko arduradunekin batera. Praktiketako erkidego edo ikasteko lanbide-erkidego gisa eratuko dira talde horiek, eta proiektua edo hobetzeko plana ikastetxean dinamizatzeko eta garatzeko arduradunak izango lirateke.

Ikastetxe bakoitzak hobetu beharrekoak lehenetsiko ditu, eskolaren antolamenduaren berriarazko arloak edo alderdi orokorrak oinarri hartuta, eta halaxe agerraraziko dira Zuzendaritza Proiektuan eta ikastetxearen urteko planetan, eskolaren eta erkidegoaren arteko dialektikan sortzen diren arazoei aurre egitera bideratuta, absentismoaren kasuan esaterako.

Aldi berean, eskola-erkidegoko gainerakoentzat irekita dauden proiektuak garatu beharko lirateke. Berriz ere prozesu horren hasiera ez dago zurrunki ezarrita. Dena dela, barneko eta kanpoko jarduerak, bere jarduerak, eskola-erkidego zabalagoarentzakoak eta gizarte-erkidegoan zentratutako jarduerak aldi berean egin litzakete ikastetxeek, neurri handiagoan edo txikiagoan.

Ikastetxeen eta ikastetxeen eta erkidegoaren arteko lotura hori lagungarria izango litzateke ikastetxe bakoitzaren nortasuna indartzeko, eta eskola inklusiboko proiektu batek lortu nahi duen kultur nortasun komuna (auzoko nortasuna) sortzen lagundu dezake.

Unitate geografiko batean, lehen sarea sortu beharra dago eskola inklusiboaren proiektuan parte hartzen duten ikastetxeen artean, eta hainbat guneren edo nukleoren inguruan antolatuko lirateke (irakasleak, ikastetxeetako zuzendaritza-taldeak, proiektuaren koordinatzaileak eta ikasleak). Gune horietan, praktiketako erkidegoetan oinarrituriko prozesu metodologia erabilita, eskolen arteko elkarren beharrak aztertu eta erantzuna eman liteke. Esaterako, sarea osatzen duen ikastetxe bakoitzari dagokionez, partekaturiko proiektua zehaztu lezake sareak urtero, helburu komun inklusiboan aurrera egitea ekarriko duena. Kasu horretan, funtsezkoa da zuzendaritzako proiektuak egitea sareko ikastetxe guztietarako adosturiko ildo estrategikoekin.

Funtzionamenduari begira, eskola arteko sareak zenbait jarduera aurreikusitako behar dituen sarea bere nodoen inguruan egituratzeko modua errazteko, esaterako:

- Ikastetxe partaideetako zuzendaritza-talde bilerak ikasturte bakoitzaren hasieran, erlazioak eta kontaktuak planifikatzeko urteko baterako lanean.
- Ikastetxeen arteko bilerak (hiru hilean behin) irakasleekin, helburu hauetarako: komunikabide egonkorrek sortzea partaideen artean; esperientziak trukatzeko; baterako jarduketak bideratzeko gune komunak bilatzea eta, hala denean, ikastetxeen arteko hobekuntza programak garatzea. Bere egituraren interesgarria da hauexek uztartzea:
 - talde bakoitzeko denborak, non ikastetxe bakoitzak parte hartzen duen planen eta proiektuen berri emango duen eta beste ikastetxeetako irakasleekin eztabaidatuko duen.
 - talde ertainetako denborak (10-12 lagunekoak gutxi gorabehera), eskola arteko sareko baterako proiektuak eztabaidatu eta gogoeta egiteko eta horiek sortzeko.
- Ikasleek urte bakoitzeko baterako hainbat jardueratan hartuko lukete parte, oro har sareak zehazturiko urteko hobekuntza proiektuarekin edo gaiarekin lotuta.
- Azkenik, eginkizun horiek koordinatu behar dituztenek aldi-aldi bildu beharko lukete, beren beharren arabera, oro har irakasleen ikastetxeen arteko bileren

ondoriozko baterako ekintzen gaineko garapena aztertzeke, partekatzeke eta planifikatzeko.

Ikastetxeen arteko sarearekin batera, tokiko erkidegoa eta bertako gizarte-hezkuntzako erakundeak bilduko lituzkeen beste sare bat sortu beharko litzateke (udala, eskola zerbitzuak, gizarte zerbitzuak, hirugarren sektoreko enpresak...), hasieran ikastetxeetan hasitako printzipioei, prozesuei eta hobekuntzei jarraipena emateko toki mailan.

Ildo horretan, bi ekintza mota egin daitezke tokiko erkidegoarekin:

- Lehenengoa, erkidego-sarea formalizatzeko, gizarte, hezkuntza eta komunitate esparruko gizarte eragileek (EISE, oinarrizko gizarte zerbitzuak, udaltzaingoa, udaleko eskola osasuna, Babes Zibila...), osasun zerbitzuak (Osakidetza) eta haurrentzako eta nerabeentzako arreta espezializatuko beste zerbitzu batzuek parte hartuta.
- Bigarren ekintza motak berekin dakar tokiko erkidegoak gizarte gai garrantzitsuetan edo egoeretan parte hartzea toki mailako proiektu inklusiboan aurrera egiteko. Halaxe da, adibidez, proiektua tokiko hedabideetan ikusaraztea (prentsa, irratia eta telebista), abiarazitako ekintzak ezagutarazteko eta eztabaidatzeko, edo metodologiak erabiltzea, zuzen erkidego-prozesu zuzentzaileak bezala, irizpideak emango dituztenak modu autonomoan eta osasungarriagoan hazten laguntzeko.

5.2 BESTE IKASTARO BATZUETAKO AIPAMENAK

Joan Vaellok, 2017ko maiatzaren 18an² eginiko jardunaldian, “Eskola-absentismorako arriskuan dauden ikasleen erreskaterako estrategiak” izeneko hitzaldian, erreskate proaktiboaren beharra azpimarratu zuen, hain zuzen absentista izateko arriskuan dagoen ikaslea detektatzeko, eremu horretatik erreskatatu eta eskola-eremuan kokatzeko, ez bakarrik eskolan egon dadin, baizik eta ikasleak eskolan egon nahi izateko. Proaktibitatea aipatzen du, irtenbideen kulturatzat hartuta, kexaren kulturaren aurrean. Hauek dira darabiltzan ideia nagusiak:

- Antzematearen eta esku-hartzea lehenbailehen izatearen garrantzia.
- Esku-hartze hori hezkuntza eta gizarte esparruan eman behar da, pertsonalizatua eta iraunkorra izan behar du, eta eskola-errendimendu baxuaren arrazoiak aztertu behar ditu. Arrazoi horien artean absentismoa dago.
- Arrisku-eremu horren “erreskatea” egokitasun printzipioan oinarritzen da. Lehendabizi, aritzen den eragilearen egokitasuna. Hor oso garrantzitsua da esku-hartzen duen pertsonak ikaslearengan eragina izateko gaitasuna izatea. Horrek esan nahi du eskola-elkartean (irakasle bat, Administrazio eta Zerbitzuetako langile bat, beste ikaskide bat izan daiteke) bilatu behar dela.
- Egokitasuna tratamenduan ere aplikatzen da. Horregatik, jokabidearen kausa aurkitu behar da tratamendua egokia izan dadin, eta une egokia ere bilatu beharra dago. Ildo horretan, “lehenbailehen” izan behar dela azpimarratzen du.

²<http://www.cecobi.hezkuntza.net/web/guest/curso-2016-20171>

Hezkuntzazko esku-hartzeak alderdi kognitiboari, gizarte-harremani, emozioen esparruari jarri behar dio arreta, ikasleak arrisku-eremu honetatik erreskatatzeko, haien ongizatea bilatuz, haien motibazioa eta interesak piztuz eta arreta eta kontzentrazioa garatuz.

Esku-hartze horretan irakasleak funtsezko garrantzia du. Hemen ere errepikatzen du funtsezkoa dela kexaren kulturatik (ikasleari, bere familiei errua botatzen diena... eta horren ondorioz, arloan arreta jartzen duten eta ikasleen interesetatik gero eta urrunago dauden ikasle profil bat ekartzen duena) kultura proaktibo batera igarotzea, irtenbideak bilatzen dituen, non arazoak abiapuntu gisa planteatzen diren. “Agian” delakoaren kultura da... zentroa ez denez etortzen, agian... Ez duenez ikasten... agian... Horrez gain, jarrera horrek beste eragile batzuekin lan egitea ekartzen du, ikasleen beharrei erantzuteko, hala ere, norberak bere buruari “zer egin dezaket nik” galdetzea eskatzen du.

Txostenean zehar beste ideia bat azpimarratzen du, “ekonomia eta erraztasuna” delakoa, kostua-irabaziaren zentzuan. Kontuan hartzen diren esku-hartze eta neurriak kostu baxukoak eta irabazi handikoak izatea proposatzen du. Adibide gisa “behaketa arakatzaileria” jartzen du: behaketa aktiboa, non burmuinak arreta zeri jarri behar zaion erabakitzen duen. Absentismoaren kasuan, irakasleen talde osoak begirada bera partekatzea ekarriko luke, aurrez adostutako adierazle erraz batzuen bidez (laguntzazkoak, gizarte arlokoak, emoziozkoak, motibaziozkoak, kognitiboak...). Horrek, arazoak detektatzeko gaitasuna indartuko luke, eta esku-hartzean lagunduko luke.

Absentismoaren arazora itzuliz, zenbait eragin identifikatzen ditu, eta horiei aldeko eta kontrako korrante esaten die. Garrantzitsua da azken horiek batik bat ezagutzea, horien aurka egin ahal izateko. Kontrako korranteak izan daitezke: etxea, kalea, konpainiak eta zibernetika. Kontrapuntu gisa, aldeko korranteetan hauek identifikatzen ditu: irakasleak, ikasleen ikuspegia partekatzen dutenean; tutoretzak, zeharkako ikuspegia ematen dutenean; zentroetako zuzendaritza-taldeak, barneko eta kanpoko eragileen artean aritzen diren elementu estrategiko gisa; gizarte esku-hartzea eta familiak, aliatu gisa aritzen direnean.

Hauek dira aurkitutako absentismoan esku hartzeko beste ideia batzuk: a).- afektibitate-tutoretzetan eta tutoretza pertsonalizatuetan egindako lana. Horiek eragina duten eta konpromisoa hartzen duten pertsonak egiten dute, eta laguntza pertsonalizatu eta jarraitua egiten dute. Urtekoak izan daitezke, edo arazoa egoten den denborarekin lotutakoak; b).- berdinen arteko laguntza, eskolatzea ekartzen duten irudiak bilatuz; c).- familiak, ahal eta nahi badute; d).- gizarte-esparruko pertsonak. b). Edozein kasutan, azpimarratzen du funtsezkoa dela ikasleentzat eragin handia duten irudiak identifikatzea, izan ere, egiten duenez gain, norik egiten duen da garrantzitsuagoa.

Amaitzeko, irakasleen garrantzia indartzen du, bestelako arrazoien artean ikasleekin ematen duten garrantziarengatik. Horri esker, haien motibazioa eta interesa pizten dute. Horretarako zenbait proposamen egiten ditu: esaterako, erronken arabera lana, autoestimarekin lotuta doazenak, arrakasta eta goraiapamena badugu, jarraitzen dugulako, bestela, etsitzen dugu. Baita gizarte esku-hartzearen beharra ere, irakasleen jarduerarekin koordinatuta, eta esku-hartzea ahalik eta lasterren egiteko aukera ematen duen informazio esanguratsuen igorpen eraginkorra eginez, txostenaren hasieran adierazten zuen moduan.

José Ramón Ubietok, 2016ko irailaren 8an ³eskola-absentismoari buruz eginiko jardunaldiko “Elkarlanerako estrategiak erakundeen arteko koordinazioan. Interxarxes esperientzia (2000-2015)” izeneko hitzaldian, ikuspegi bakarretik ezin landu daitekeen arazotzat planteatzen du absentismoa, dela eskola mailan, dela gizarte edo osasun mailan... Hortaz, elkarrekin lan egiteko modua aztertzea da kontua, elkarrekin pentsatzeko eta arazoari aurre egiteko.

Jada zaharkituta dagoen ongintzaren eta laguntzaren arteko erlazioaren paradigma zaharraren aurrean, bi paradigma berri hauetako bat hautatu beharra proposatu zuen: alde batetik, buruzagirik gabeko hiperkudeaketaren paradigma (berringeniaritzaren eredua) dago, baliabideak protokolizatuz eta bideratuz optimizatzea dakarrena; beste aldetik, “elkarrizketa printzipio gidaria delako” paradigma dago, kasuaren zentraltasunean oinarritzen dena, subjektuarentzako arreta orokorra bilatzen duena eta profesionalen arteko diziplinarteko elkarrizketa oinarri duena.

Bi paradigmek sareko lana defendatzen dute, baina ikuskera ezberdinetatik:

-“Berringeniaritza”ren eredua (administrazioak enpresatik inportatutako irizpideei helduta lan egin behar zutela pentsatzen hasi zirenean sortutakoa) baliabideen optimizazioa du helburu, eta antolaketa prozedurak protokolizazioa eta bideratzea dira. Koordinazioa eta lankidetzak eginkizunen eta zerbitzuen banaketatzat eta bideratetzat jotzen dituzte.

- “Kasuaren zentraltasuna”ren eredua ustez, sarea laguntza da: subjektua da elementu zentrala. Haren helburua kasuaren arreta orokorra da, eta prozedura diziplinarteko elkarrizketa da. Lanbide eraginkortasuna emango digu, profesionalak izanda, elkarrekin lan egiteko eta sistemak edo dagokigun zereginen bideratzea ahalbidetzen diguten lankidetzak-estategiak ezartzeko orduan dugun gaitasunak. Galdera ez da “Niri dagokit?”, “Zer egin dezaket nik kontu honetan?” baizik. Ezin dugu espero kanpotik norbaitek esatea nola joka dezakegun modu egokian kasu jakin batean; hitz egin behar dugu, pragmatika bat aurkitzeko, hau da: jokatzeko, ideia batzuk izateko... Eta hori guztia hitzak funts gisa duen ahalmenaz baliatuz: berezkoa duguna da, eta sortzeko gaitasun handiagoa duena; hitza gizakiaren berezko tresna gisa. Eta ez dugu ahaztu behar lan honetan gidatzen gaituena ondorioen etika dela, eta ez asmo onen etika.

Sareko lanak agertuko luke diziplinartekoa den eta helburu bikoitza duen elkarrizketa bat antolatzeko dugun gaitasuna. Hona hemen bi helburu horiek: lehenengoa orientatzea edo “zer pasatzen den jakitea” da, proaktiboak izateko eta egoerei aurre hartzeko; bigarrena gure zereginari eustea da (gure esku-hartzea duten egoerek sorrarazten duten larritasuna lasaitzea eta partekatzea, presak saihestea...).

Beste adibide bat Ramón Llull Unibertsitateko Jordi Longás Mayayo irakasleak eman zigun Bilbon 2015eko apirilaren 23an eskola-absentismoari buruzko jardunaldian, honako izenburua zuen hitzaldian: “*Hezkuntzako laguntza ingurune zailetan. Sareko lanak eta erakundeen arteko lankidetzak eskolako arrakasta hobetzeko*”. Horri buruzko laburpena emango dugu ondoren⁴.

Eragileei eskola-arrakasta lortzeko hezkuntza proiektu bat lantzea ahalbidetzen dien ikuspuntu global bat planteatzen du. Neuronaren metafora erabiliz, lau printzipio planteatzen ditu:

1. *printzipioa: konplexutasunetik begiratzea* (eta ez sinplifikazioa, interdependentzia, eredu ekologikoa, ikuspegi sistemikoa).

Gure arrakasta eta porrota inguruan bizi izan dugunarekin erlazionatuta daude gehienbat, eta ez horrenbeste gure merituekin. Zentzu horretan, beharrezkoa da ez sinplifikatzea. Eredu

³<http://www.cecobi.hezkuntza.net/web/guest/curso-2015-20161>

⁴<http://www.cecobi.hezkuntza.net/web/guest/curso-2014-20151>

ekologikoaren ideia hori aitortu beharra dago, ez banakako lanaren ideiarri dagokionez bakarrik, hezkuntza zentro baten modura ere bai, gizartean zeregin garrantzitsua duelako. Baliteke ikuspegi sistemikoak orain arte segurtasun handia eman digun zerbait baztertera eramatea: beharizanen zatiketa hori, diziplina zientifikoaren zatiketaren ondorio zena, espezializazio handia eskatzen zuelako. Eskema honetan, arriskuan dauden haurren problematika anitzari erantzutea litzateke egin beharrekoa, politiken edo ekintzen aniztasun globalagoa eta koordinatuagoa garatuz.

2. printzipioa: pertsona (herritarra) esku-hartzearen erdian

Pertsonalizatzeko, erdian jarri behar ditugu pertsonak, eta pertsonen laguntzeko gai diren sistemak eduki behar ditugu; izan ere, beste gai burokratiko batzuetan denbora ematen dugunean, gaizki ateratzen da zerbait. Espazio horiek berreskuratu behar dira, erdian dagoen herritarren ideia hori lantzeko eta harekiko loturak identifikatzeko. Logikoa litzateke pertsonekin zuzenean jarduten duten zerbitzuak beren artean koordinatuago egotea, zeharka. Horretarako, erakundeak lankidetzan aritu behar dira haien artean, profesionalen borondatea ez baita nahikoa. Erakundeen arteko esparrua beharrezkoa da.

3. printzipioa: lurraldea erreferente modura (hurbiltasunerako, gobernantzarako, tokikoaren eta globalaren arteko orekarako, demokraziarako, gizartearen iraunkortasunerako eta abarretarako politikak).

Bizia jokatzeko dugu ikastetxean, anbulatorioan, supermerkatuan, bizi garen kalean... Asko dago gure inguruan. Bertan gobernantza maila handia egon daiteke, jendea inplikatzeko laguntzen duena...

Bi kontzeptu garrantzitsu daude: a) gobernantza maila: nire lanbidean, nire lanean, oro har gizarte guztiaren ardura dugula sentitu behar dugula ulertzea da, eta ez bakarrik guk zerbitzatzen dugun zatiarena. Nire begirada desberdina bada eta niri dagokidala sentitzen badut, ongizate publikoarekin konprometituta egongo gara. Hala ere, hurbileko gobernu hori mehatxupean dago (murrizketa finantzarioak, lege-aldaketak...); b) tokikoaren eta globalaren arteko oreka: nortasunak barreiatuz doaz, norberarena, herriarena... Nortasun kolektiboa barreiatuz doa, eta, horren aldean, egoaren gurtza sublimatzen ari da, eta horrek ia patologikoak diren muturretara garamatza (horren adibide da bere buruaz beste egin zuen pilotua, hegazkinen bidaiari guztiak berarekin eramane zituena hedabideetan agertzearen). Oso garrantzitsuak diren elementuak daude, parte-hartzeari, autonomiari, autokudeaketari eta abarri buruzkoak, eta, horiei dagokienez, badago herri gisa proiektu bat garatzeko aukera. Hiri handietan hiri hezitzailearen eredua dago. Tribu oso bat behar da haur bat hezteko. Horixe da ideia, gizarte hezitzailea duen ingurua lortzeko modua aurkitzea, hobeto bizitzeko. Hurbiltasuna, eskolaren zeregina, garrantzitsuak dira, norberak elkarrekin bizitzen eta hiritarra izaten ikasten duen eremu gisa. Gaitasun hori gure ikasle guztiek lortu beharko lukete.

4. printzipioa: sare-eredua proposamen gisa (lankidetzarako kultura, informazio trukea, ikuspegi globala eta komunitate-proiektua, horizontaltasuna eta zeharkakotasuna, kapital soziala).

Norberaren neurona-sareak automatikoki funtzionatzea ahalbidetzen digu. Gure bihotzak taupadaka jarraitzen du etengabe, gure burmuineko parteren batek hala egiten jarraitzeko esaten diolako. Sare sozialaz ari garenean, antzeko zerbaitez hitz egiten ari gara. Gizarte batzuetan funtzionamendu automatikoa beste batzuetan baino hobea da, eta badaude beste batzuk baino adimentsuagoak diren gizarteak, arazoetan aurrerapauso gehiago ematen dituztelako, beharizanen inguruko erabaki hobeak hartzen dituztelako eta etorkizunerako estrategikoagoak eta positiboagoak diren jarduketak jarraitzen dituztelako. Gizarte horiek hobeak dira pertsonentzat. Horrek estrategia sozialen egitura bat eraikitzeke moduan pentsatzera garamatza, gure burmuinaren gisan funtzionatuko lukeena. Hortik dator sare-

ereduaren ideia hori, pertsonak babesten dituen eta haien artean lotzen eta hurbiltzen dituen. Horrela, hezkuntza eragile bakoitzaren esku-hartzeak eraginkorragoak dira.

Egile horien teoria eta hausnarketa horiek guztiak bermatuta daude, maila txiroetakoak diren eta baztertuak izateko arriskuan dauden ikasleekin beren eguneroko lanean eta zuzeneko harremanetan esperientzia dutelako eta ondo jarduten dutelako. “Jardunbide egoki eta eraginkorren” eredia dira absentismoaren aurkako borrokan, ikasleen gaitasun mailaren hobekuntzan, familiekiko lankidetzan, desabantaila soziala gainditzean, eta azken finean, ikastetxea ingurua eraldatzen duen eragile bihurtzean, beste erakunde batzuekin lankidetzan arituz.

María Eugenia Sánchez Guerrero adibide da aipatutakoen artean. Sevillako Paulo Orosio Haur eta Lehen Hezkuntzako zentroko zuzendaria da, eta 2014. urtean hitzaldia eman zuen Bilbon egin ziren eskola-absentismoari buruzko jardunaldietan. Ikasgeletan duen esperientziaren emaitzaren modura, bere zentroan ebaluazio diagnostikorako probetan errendimendu akademikoa hobetzeko eta eskola-absentismoa desagerrarazteko gakoetako bat zein den azaldu zuen:⁵ irakasleen inplikazioa, metodologia egokia eta ikasleen interesetara egokitua (proiektuekin lan egitea), familien inplikazioa ikastetxean eta hezkuntzan, prebentzioa eta jarraipena, inguruko erakunde eta eragile guztien inplikazioa eta lankidetzak (gizarte zerbitzuak, udaltzaingoa, pediatriak, buru osasuneko zentroak, kale hezitzaileak, herritar plataformak, GKEak...), derrigorrezko bigarren hezkuntza eskaintzen duten zentroekiko koordinazioa... Horiek guztiek eragina dute eskola-absentismoa desagerrarazteko orduan.

Ildo horretatik, Miguel Ángel Santos Guerrak (2012) esandakoaren arabera, absentismoari eta eskola-porrotari buruzko azalpen guztietan ikasleen edo familiaren hutsak aipatzen direnean, *“ezinezkoa da edukien itzaerari eta egiturari, profesionalen erabilitako metodologiari, egindako ebaluazioari, ikasgelako giroari, eskatzen den mailari, ikastetxearen beraren zentzuari eta abarri buruzko galderak agertzea. Eta, galderarik gabe, zaila da erantzunak bilatzea. Diagnostikoa gaitzki eginda dagoenean, emaitzak ere akastunak izaten dira”*.⁶

“Eskola absentismoa hezkuntzaren kalitaterako erronka” izeneko hezkuntza-ikerketako lanak J. Rué, M. Amela eta M. Buscarons-ek egin (2003) ondorioztatzen du ikerketa horrek errealitate konplexu baten aurrean jarri dituela. Errealitate horrek ikasle zehatz batzuekiko mugak agertu ditu, baina horrez gain, beste bide batzuk ere erakutsi ditu irakaskuntzan jarduteko eta derrigorrezko hezkuntzako erabiltzaile guztiei kalitate bermeak eskaintzeko. Horrek pentsamolde aldaketa dakar: arreta handiagoa jarri behar dugu eskolatze berrian, hau da, sortzen ari diren eskarrietan egoera pertsonal berezi edo espezifikoei (adibidez, ikasle absentistak) laguntza ematean baino. Ikasle horiek eurentzat den erakunde baten aurkako hainbat erronka mota agertzen duen sektorea dira, haren eginkizuna aintzat hartu ezin duten edo, are txarrago, zuzenean gaitzesten dutela.

M^a Teresa González Gonzálezen “Absentismoa eta eskola bertan behera uztea hezkuntzako bazterkeriaren egoera berezia” artikuluan (2006), absentismoaren arazoari heltzen zaio, eta ikaslearen gaineko foku bakarretik (famili ezaugarriak, bizi den komunitatearenak, bereizgarri pertsonalak, portaera akademikoak) eskola-antolakuntzaren eta hezkuntza politiken fokura igarotzen da, eta zera dio ondorio gisa:

⁵<http://www.cecobi.hezkuntza.net/web/guest/129>

⁶<http://www.cecobi.hezkuntza.net/web/guest/ano-2013>

- Absentismoa eta eskola-uztea saihesteko jarduketa oro eraginkorra izateko, ikastetxeko kide guztiak ados egon behar dira honako honetan: bertaratzea hobetzeko, aldaketa esanguratsuak egin behar dira ikasteko giroen kalitatea hobetze aldera.
- Garatzen diren estrategia eta planen abiapuntua honako hau izan behar da: ikastetxeak azterketa egin behar du, eta ulertu egin behar du zergatik ez doazen ikasleak eskolara, zergatik deskonektatzen diren curriculumetik, zergatik ez zaizkion lotzen lan akademikoari, ezta gizarteari ere... Hortaz, ezinbestekoa da jakitea zein neurritan eragiten duten egiturek beraiek, eskaintzen diren curriculumek eta gelako irakaskuntzek, inguruarekiko harremanek eta ikastetxearen funtzionamendua egituratzen duten usteek bertaratze eta eskola-uzte arazoetan.

Europar Batasuneko INCLUD-ED Ikerketako Esparru Programen barruan, A. Flecha, R. García, A. Gómez eta A. Torreren (2009) “Eskola arrakastatsuetan parte hartzea: ikerketa komunikatiboa” artikuluan agerienez, eskolaren eta familiaren arteko harremanean oinarritzen diren ikerketek frogatu egin dute familien eta komunitatearen partaidetzak areagotu egiten duela gutxiengo kulturei dagozkien edo minusbalotasuna daukaten ikasleen errendimendua (Caspé, López eta Wolos, 2007; Dearing, Kreider, Simkins eta Weiss, 2006; Driessen, Smith eta Slegers, 2005; Hess, Molina eta Kozleski, 2006; Merry, 2005). Nazioarteko komunitate zientifikoak jada ezagutzen dituen ekarpen horiek hezkuntzaren arrakastarekin lotzen diren parte-hartze motak zeintzuk diren jakiteko sakontzea eskatzen zuten. Includ-ed proiektuaren emaitzek komunitateak ikastetxeetan parte hartzeko dauden molde batzuen sailkapena ekarri zuten: informatiboa, aholku-emailea, erabakitzailea, ebaluatzailea eta hezitzailea. Argi eta garbi ikusi da familien eta komunitatearen parte-hartzeko jarduketa jakin batzuek lotura daukatela maila sozioekonomiko txikiko eta talde gutxituetako ikasleen arrakastarekin: familien prestakuntza, komunitatearen esku-hartzea erabakia hartzeko prozesuetan, eta parte-hartzea curriculumaren garapenean eta ebaluazioan.

2009ko azaroko “Mundu aldakor baterako funtsezko gaitasunak” izeneko agiriak (Batzordearen komunikazioa Europako Parlamentuari, Kontseiluari, Batzorde zientifiko eta sozial europarrari eta Eskualdeen batzordeari) hauxe dio: *“Metodo berritzaileak, adibidez ikasketa-programa pertsonalizatuak eta esperimentazioan oinarritutako ikasketa, bereziki erabilgarriak izan daitezke eskolako esperientzia negatiboak edo porrotez beteak jasan dituztenentzat”*.

Carlos Ferreirós fiskalak (2011) derrigorrezko irakaskuntzari eta Fiskaltzak egin ahal duen esku-hartzeari buruz egindako azterlan luze eta zorrotzean azpimarratu egiten da herri garatueta haurren babeserako xedapenen eraldaketaren ardatza; hain zuzen ere, haurrak eta nerabeak *“eskubidedun subjektu”* gisa kontuan hartzea. Bertatik sortzen da babeserako espedienteak eraentzen dituen funtsezko printzipioa: “adingabearen interesa”. Printzipio horrek gidatu behar du botere publikoek adingabeen eskubidea –kasu honetan, hezkuntzarako eskubidea– jardunbide desegokien aurka babesteko egin beharreko esku-hartzea, jardunbide horiek familiek ontzat eman arren.

Carlos Vázquez González zigor zuzenbideko irakaslearen artikuluan (2013), botere publikoek eta familiek hezkuntzarako eskubidea bermatu behar dutela aipatzeaz gain, gizarte-bazterkeriarekin, marjinazioarekin eta delinkuentziarekin lotutako absentismoak gizartean eragiten duen arazoa aztertzen da. Izan ere, ikerketa kriminologikoan egiaztatu ahal izan den legez, eskola-porrotak edo eskola-uzte goiztiarrak eragina du gazteen delinkuentzian.

Maribel García García irakasleak (2009) eskola-absentismoaren kausa zahar eta berriak identifikatu ditu. Kausa zaharrek egiturazko gizarte-ezberdintasunetan dute jatorria (ezberdintasun ekonomiko, sozial eta kulturalak), eta baita hondarreko zenbait berezitasun kulturalen biziraupenean ere. Horiek guztiak Lehen Hezkuntzan ikusten dira argi eta garbi. Kausa berriek, aldiz, eskolatzegaraia luzatu izanari loturiko absentismo-egoerei buruzkoak dira. Ikasten eman beharreko epea luzatu izanaren ondorioz 14 eta 16 urte bitarteko zenbait ikasleek eskolan jarraitu behar dute euren interesak eta igurikimenak bestelakoak izan arren, eta horrenbestez, eskolak ikasle-profil berri horren ezaugarrietara egokitu behar ditu bere metodoak eta antolamendu pedagogikoa.

José Luis Martínez Pérez-en doktorego-tesiak (2009) jasotzen duenez, eskola-absentismoa eragiten duten faktoreek hezkuntza-sistemaren funtzionamendu konkretuarekin izaten dute zerikusia sarritan. Eskola-absentismo kasu gehienetan funtsezko papera jokatu ohi du ikastetxeak berak. Ikastetxeak eskaintzen dituen aukerek hezkuntza-aukerak irekitzen edo ixten dituzten heinean, aurrebaldintzek eragin handiagoa edo txikiagoa izango dute portaera absentistak eragiten dituzten faktoreetan. Horrenbestez, eskola-absentismoa eskolaz kanpoko faktore batek eragiten duen kasuetan ere eskolak paper garrantzitsua izan dezake, ikasleari eskain diezazkiokeen hezkuntza-aukerari eta eskola-integrazioari dagokienean.

M^a Teresa González González irakaslearen “Eskola-absentismoa: ikastetxetik nola erantzun” artikuluan (2014), berriro dio beharrezkoa dela ikastetxe orok eskola-absentismoa prebenitzeko edo ahalik eta arinen esku hartzeko kontuan izan beharko lituzkeen planteamendu, estrategia eta neurriei erreparatzea. Prebentzio politikaren modura jarduteak ikastetxearen funtzionamenduaren zenbait alderdiri erantzutea eta hobetzea esan nahi du, alderdi horiek ikasleek duten eskola-esperientziari eragiten baitiote. Horrela, ikasle horietako batzuk ikastetxetik, ikasgeletatik eta hezkuntzatik urruntzen edo aldentzen joatea prebenituko litzateke; izan ere, aldentze horrek jarrera absentista eragiten du, eta denborarekin areagotu egiten du jarrera hori. Alde horretatik, absentismoa ekiditen duen eta horren aurka gehien babesten duen faktorea ikastetxearekin eta ikasketarekin ahalik eta gehien inplikatzeko da. Horretarako, ikastetxea ikasleak harrapatzeko gai den erakunde baten modura itxuratu behar da, bertako giroan zentratuz, dinamika kurrikularrak landuz eta ikasteko giro egokiak sortuz, toki erakargarriagoa izatea lortzeko, ikasleek egon nahi duten toki bat. Horretarako, ikastetxeak aztertu behar du nola lor dezakeen giro positiboa, ongietorria ematen duen giroa, segurua, akademikoki erronkaria eta ikasle guztientzako pertsonalizatua dena. Gainera, administrazioen eta gizarteko eta komunitateko sektoreen arteko lankidetzan eta koordinazioan oinarritutako ekintzen alde egin behar du. Familien lankidetzan eta inplikazioan ere berebizikoak izango lirateke. Zentzu horretan, hezkuntza zentroek zerbitzu desberdinekiko harremana lantzeko mekanismoak abiarazi behar direla dio, zerbitzu horiek baliabideak ematen dituztelako eta batez ere, komunitatea sustatzen dutelako: interdependentzia- eta laguntza-sareak familien baitan eta kanpoan, bizilagunen artean, zerbitzuetan eta ikastetxean. Azken batean, nerabeak mugitzen diren gizarte-egitura indartzea litzateke.

Arazo honen dimentsioa, txikia izanik hezkuntza-sistemaren ikuspuntutik, ez da hala norbanakoaren ikuspuntutik, eskola-porrota eragiten duen egoera hori baita pertsona horien geroke bazterketa sozialaren arrazoi bat. Arrazoi horrengatik, txosten honetan, aurrekoetan bezala, J. Delorsek (1996) zuzentzen zuen XXI. menderako hezkuntzari buruzko Nazioarteko Batzordeak UNESCOri egindako Txostenean ageri dena azpimarratzen dugu:

“Herrialde askok, batez ere herrialde garatuek, gaur egun hezkuntza politiketarako oso harrigarria den fenomeno jasaten dute: eskolatze-aldia luzatzean paradoxa da gizartean abulena diren edo eskola-porrota jasaten duten gazteen egoera larriagotzea, hoberantz egin ordez. Munduko hezkuntza arloko gasturik handienak dituzten herrietan ere, eskola-porrotak eta bertan behera uzteak ikasle askori eragiten diete. Gazteen kategoria biren arteko zatiketa sortzen da, are zatiketa larriagoa, lan arloan irauten duela kontuan hartuta. (...) Bazterkeria sortzen duen aldetik, eskola-porrota kasu askotan indarkeria molde batzuen edo norbanakoen galbideen sorburua da. Gizartearen ehuna urratzen duten prozesu horien ondorioz, eskolari gizarte bazterkeriaren eragile izatea leporatzen zaio eta aldi berean eskolari integratzearako edo berrintegratzearako funtsezko erakunde gisa dei egiten zaio. Hezkuntza politikari planteatzen zaizkion arazoak bereziki zailak dira; eskola-porrotaren aurkako borroka, beraz, gizarte-agindua izan behar” (61. or.).

Ikerketa ezberdinek arazo hori jorratzen dute, horien arabera eskolagabetzearen ondorioak larriagoak baitira orain enplegu osoa zegoen garaian baino. Frantziako “Esperientziak eta jardunbide berriak” artikuluan baieztatzen denez M. Esterle Hedibel (2005), *“enplegu bat betetzeko eskatzen den trebakuntza maila gaur egun handiagoa da, eta eskola-sistema titulurik gabe eta/edo 16 urte bete baino lehen uzten duten ikasleen gizarte eta lanbide arloko iguripenak askoz txikiagoak dira”*.

Azkenik, Europar Batasunaren 2020. urterako helburuetako bat da eskola-uztearen portzentajea % 10etik behera egotea, eta belaunaldirik gazteenaren % 40k, gutxienez, goi mailako ikasketa osoak eduki beharra. Kontuan hartzen badugu “eskola-uztea” terminoarekin Derrigorrezko Irakaskuntza bukatu ostean beste ikasketarik egiten ez duten gazteen portzentajea adierazten dela, arazoa askoz larriagoa da absentisten kasuan; izan ere, horiek, arazoak iraunez gero, ez lukete ezta Oinarrizko Irakaskuntza ere amaituko.

6 LAN-TALDEETAKO AKTETAN JASOTAKO ABSENTISMOARI BURUZKO JARDUNALDIAN PARTE HARTU ZUTEN PERTSONEN IRITZIA

2018ko apirilaren 26ko absentismoari buruzko jardunaldian eratu ziren lan-taldeetan, jardunaldian parte hartu zutenek aurretik hautaturiko hainbat gai aztertu ziren. Ondoren azalduko dira aktetan bildutako gogoeten laburpena:

Proposaturiko gaia	Eztabaidaturiko funtsezko ideiak	Ekintza proposamenak
IKASTETXEAK ERALDATZEA	<p>Metodologiak ikasleen benetako beharren arabera aldatu beharra.</p> <p>Aldatzeko zailtasunak erresistentziengatik.</p> <p>Erakundeen arteko elkarlan arinaren eta eraginkorraren beharra.</p> <p>Ikastetxe bakoitzaren berezitasunak eta beharrak aintzat hartzearen garrantzia.</p>	<p>DBHko irakaslearen prestakuntza.</p> <p>Ikastetxearen estiloarekin eta proiektuarekin konprometituriko irakasleen egonkortasuna.</p> <p>Ikastetxeen eta eskaintzen dituzten zerbitzuen gogoetarako, azterketarako eta ebaluaziorako guneak ezartzea.</p> <p>Aldaketak metodologian, estilo akademizistan.</p> <p>Metodologia aktiboak ezartzea: tailerrak, proiektuak...</p> <p>Ikastetxeen autonomia handiagoa ezartzea/ahalbidetzea. Lanbide erantzukizunak bereganatzea.</p> <p>Proiektuak garatzeko baliabideak.</p> <p>Zuzendaritza-taldeen lidergoa.</p> <p>Irakasle batzuk aukeratzeko ahalmena.</p> <p>Tutoretza, irakasle guztien eginkizuna izatea, ez bakarrik tutoreena.</p> <p>Etapen arteko zubiak bermatzea.</p>

ZER GEHIAGO EGIN DEZAKEGU?	<p>Ikasleak eta familiak ezagutu beharra.</p> <p>Ikasleen motibazioa aintzat hartzea eta metodologia berriak erabiltzea.</p> <p>Ezohiko neurriak aintzat hartzea.</p>	<p>Eskola gurasoei zabaltzea.</p> <p>Familiak prestatzea.</p> <p>Familiei entzutea eta eurekin lan egitea.</p> <p>Ikaskuntza osagarriko ikastetxe gehiago sartzea: bestelako aukerak dituzten ikastetxeak.</p> <p>Proiektu mota ezberdinak egitea ikastetxeetan bertan.</p> <p>Komunitate-lanak egitea.</p> <p>Ikasleekin lan psikopedagogikoa egiten duten orientatzaile eta aholkulari gehiago.</p> <p>Ikasleekin lan terapeutikoa egin beharra aintzat hartzea.</p> <p><i>Metodologia aldatuz gero, beharrezkoa al da lan terapeutikoa?</i></p>
PORTAERA ABSENTISTA HAUR ETAPAN (AURREZAINITZA)	<p>Nahitaezkoa ez izateak ez du esan nahi egin behar ez denika.</p> <p>Familiaren, eskolaren eta oinarritzko gizarte zerbitzuen arteko komunikazioa hobetzea/ezartzea.</p> <p>Eskola detekzio eta jakinarazpen tokitzat baliatzea.</p> <p>Esku hartzeko protokoloak edo moduak ezartzea oinarritzko gizarte zerbitzuen eta eskolaren artean egiten den lanean.</p>	<p>Arlo askotako espedienteak sortzea etapako urratsak erregistratzeko.</p> <p>Arloen arteko talde-foroak eta guneak sortzea.</p> <p>Portaera absentisten jakinarazpen/erregistro kultura sortzen jarraitzea.</p> <p>Sareko lana sistematizatzea.</p>
BALIABIDEAK ETA EGOERA LARRIAK	<p>Irakasleak finkatzeko zerbitzu-eginkizunak.</p> <p>Plantillen ezegonkortasuna saihestea.</p> <p>Metodologia aldaketa.</p>	<p>Fiskaltza egoera larrietan inplikatzeta.</p>
AUSENTISMOA	<p>Adinarekin hazten da.</p> <p>Ikasteko burua zentratuta</p>	<p>Metodologia aldaketak.</p> <p>Ausentismoa absentismoa balitz</p>

	<p>izan behar da. Absentistak ausentista bihurtzen dira. Ikasgelan dagoenaren arabera, ausentismoa dago edo ez dago. Atzean gizarte arazoa dago.</p>	<p>legez tratatzea. Elkarlana.Sarean koordinatzea. Ikastetxeetan “hezitzaileen” presentzia handiagoa. Aurrezaintza.Arreta goiztiarra. Gizarte eta hezkuntza maila berean jartzea. Banako tutoretzak. Aukera-sorta zabaltzea hezkuntza arautuaren barruan.</p>
<p>SAREKO LANA, ERAKUNDEEN ARTEKO PUNTU HUTSAK</p>	<p>Hutsuneak ageri dira erakundeen arteko lanean. Egungo gizarte baliabideak agertzen diren kasuei modu eta denbora egokietan erantzuteko gai ote diren hausnartu beharra dago.</p>	<p>Aldundiak berehalako erantzuna ematea babesik ez dagoenean. Oinarritzko arreta zerbitzuek jarraipena egitea. Sistema bakoitzak erantzukizunez egiten duenari buruzko prestakuntza (gizarte zerbitzuetan hezkuntzan egiten denari buruz eta alderantziz). Sistemen arteko koordinazio arina eta iraunkorra kasu zehatzetatik harago, aurrezaintzatik arintze-neurrietara lan eginda.</p>
<p>ETA 16:30ETIK AURRERA, ZER?</p>	<p>Ikasle absentisa gehienak ijitoak izatea. Haurrei hitza ematea ekintza proposamenetan (horien parte-hartze aktiboa sustatzea)</p>	<p>Ikasleen interesekin loturiko eskaintza erakargarria sortzea. Eskolako instalazioak aprobetxatzea (patioak, adib.), familien arteko topaketa bultzatzeko. Familiak eskolan parte hatzera bultzatzea haien jakintza eta zereginen arabera. Eskola ospakizun eta topaketarako tokizat indartzea. Liderrak kontuan izatea komunitateetan (artzain ebanjelistak, etab.).</p>
<p>ALDAKETAK METODOLOGIAN (CURRICULUMA)</p>	<p>Ikasleen beharrak eta motibazioak kontuan izatea. Hezkuntza sistemaren arazo estrukturalak. Curriculuma ikasleen benetako beharretara egokitzea. Hezkuntza-erkidego osoa</p>	<p>Curriculumari buruzko diskurtso positiboa bideratze a sistemaren berrikuspene oinarri hartuta. Ikasleen esperientziak eta motibazioak sartu, bildu eta kontuan izatea. Haurren iritzia sartzea</p>

	lotzea hezkuntzako etapa guztietan.	<p>curriculuma egitean. Lege esparrua berrikustea.</p> <p>Koordinatuta eta arlo askotariko elkarlanean gizarte esku-hartzearen arloko beste eragile batzuekin.</p>
FAMILIA, ABSENTISMOA ETA MOTIBAZIOA	Absentismoa prebenitzeko eta ekiditeko ildo estrategikoak eta metodologikoak. Irakasleen jabeakuntza.	Familiekin bilerak izatea. Sareko lanak: fiskaltza, gizarte langileak, gizarte hezitzaileak eta irakasleak, ikasgelan eta ikasgelatik kanpora Irakasleen plantillak egonkortzea ikastetxeetan. Guraso eskola.
FAMILIAK	Zenbait taldetako familien beharrak dira gogoetaren ardatza. Hona hemen mintzagaiak: parte hartzea, haien beharrak ezagutzea, hezteko ildo osasungarriak garatzeko zailtasunak, araua ohiko bizitza arautzeko elementu gisa sartzeko eta aurre egiteko zailtasunak, rolak aldatzeko zailtasunak Sozializazioa eta oinarrizko gizarte trebeziak landu beharra eta bizitzeko eta elkarrekin bizitzeko nahikoa autonomia sustatu beharra aipatzen da.	Hezteko ildo osasungarriak garatzea. Araua ohiko bizitza arautzeko elementutzat sartzeta. Rolak aldatzea. Oinarrizko gizarte trebetasunak eta sozializazioa lantzea. Bizitzeko eta elkarrekin bizitzeko nahikoa autonomia sustatzea.
ESPERIENTZIA POSITIBO ARRAKASTATSUAK	Autonomia handiagoa ikastetxeetan. Lanbideren prestakuntza familientzat. Seme-alaben taldeetan sartzeta. Ikasleak eta familiak askatzeari buruzko solasaldiak. Bizitokira joatea familien baimenarekin.	Talde dinamizatzaileak eta interaktiboak gurasoekin, hezitzaileekin eta hezkuntza-komunitatearekin. Sareko lana. Ikastetxea familiei zabaltzea. Banako tutoretzak. Metodologia aldaketa ausentismoa aztertzekeo.

7 ONDORIOAK-SINTESIA

- Azken 15 urtean, absentismo erregistroei eusten bazaie ere, absentismorik larrienaren beherakada handiabalioesten da, hau da, ikasturte osoan irauten duen absentismoari dagokiona. Ikasle horiekiko kezka bat batzen zaio, “ausentismoa” deritzoguna, ikasgeletan egon arren eskolarekiko interesik edo motibaziorik gabe egotea. Egoera horrek erronka berria dakar hezkuntza sistemarako, gizarte sistemarako, familientzako eta, bereziki ikastetxeetarako, zeren eta horiek guztiak erantzunak eman behar baitituzte ikasten dutenaren gaineko protagonistak sentiarazteko ikasleak.
- Hezkuntzaren orientazio komunitarioak zalantzan jartzen ditu ikastetxeen rola eta irakasleen rola erkidegoaren arazoan eta lehentasunen testuinguru zabalagoan. Helburua ez da bakarrik hezkuntzako emaitzetako desberdintasunei aurre egitea, baizik eta gizartearen desberdintasunei ere bai.
- Kexaren kulturatik “irtenbidearen kulturara” pasa behar dugu. Absentismoaren kasuan, irakasleen esku-hartze proaktiboak izatea eskatzen du, beste eragile batzuekin batera jokabide absentistaren arrazoiak azter ditzaten eta esku-hartze egokiena proposa dezaten, aurkitutako arrazoi bakoitzaren arabera. Ildo horretan, ezinbestekoa da pertsonen ikasle bakoitzean eragina izateko gaitasun handiagoa izatea, lagungarriak izateko eta beraien abiapuntuko egoera hobetzen joateko.
- Eskola-absentismoa saihesteko, erakunde guztietako profesionalok “subjektua” elementu zentrala duten esku-hartzeko ereduetan aurrera egin behar dugu. Sareko lana absentistarentzako eta haren familiarentzako laguntzat eta diziplinarteko elkarriketatzen jotzen da.
- Ikastetxera sarri ez joateak neurri handi batean ikaslearen garapen pertsonal, sozial eta akademikoa eragozten du, eta horrela epe luzean gizarte bazterkeriako egoerak sortzen dira. Gainera, hamar urteotan jasotako datuek, jardunbide onen azterketak eta azterlan konparatuek agerian jarri dute eskola absentismoa beste arazo batzuen “detektatzaile” on gisa dabilela: tratu txarra, berdinaren arteko erasoak, osasun arazoak, besteak beste.
- Eskola-absentismoa eskola-uztea ekartzen duen fenomeno interaktibo eta heterogeneoa da. Egoera hori faktore ezberdinek eragin dezakete: abiapuntu ezberdinak, eskola-ibilbide ezberdinak, kideen taldearen eragina, etorkizunari buruzko pertzepzioak, familien maila soziala, eskolaren inguruan norberak eta familiak dituen igurikimenak... Arrisku-egoeran dauden pertsonen ez dituzte beti portaera absentistak izaten, eta absentismoaren zio guztiak ere ezin dira gizarteari edo familiari loturiko baldintzatzaileen bidez azaldu.
- Derrigorrezko eskolatzea luzatzeak ikasleentako batzuek eskolatze hori nola bizi duten baldintzatzen du, eta Lehen Hezkuntzatik Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzara bitartean absentismo-egoerak gertatzea azaltzen du.
- Absentismoari lotuta dauden eta ikastetxean bertan dauden zenbait faktore kontuan hartzeko modukoak dira. Bi ardatz garrantzitsu lirateke –eta ez dira bakarrik– curriculum eta irakaskuntza, alde batetik, eta ikastetxeko giroa eta ikasteko giroa, bestetik. Irakasleen eta, oro har, ikastetxeen zeregina eta ardura funtsezkoak dira, batez ere ikasle bakoitzak ikastetxeko eta taldeko kide dela senti dezan. Hala ere,

absentismoa prebenitzeko dinamikak eta jarduteko moduak garatzeko, irakasleak babesten dituen eta horien esku-hartzea errazten duten politikak behar dira.

- Ikerketatik eta esperientziatik ateratako datuek erakusten dutenez, adin goiztiaragoetan esku hartu beharra dago. Ikaslea ikastetxetik aldendu denean, jada zaila da jarrera absentista zuzentzea.
- Baina, ikasturte honetan Oinarrizko Lanbide Heziketan DBH amaitu gabe 15 urterekin sartzen diren ikasle asko absentistak direla eta (%17,1), jokabide hori bideratu ezean, hezkuntza-sistematik kanpo geratuko direla egiaztatu ondoren, Oinarrizko LH da lehentasunezko esku-hartzea hartu beharko duen beste etapa bat.
- Eskolagabetzearen definizio operatiboa aldatu egin da (“ikastetxe batean matrikulatuta ez egotea”), eta, beraz, kasu konkretu batzuei bakarrik egozten zaie arazo hori, normalean “etxeko irakaskuntza” izeneko kasuei lotutakoak, familiak hala egitea erabakita.
- 2017-2018 ikasturteko datuen azterlan estatistikoak agertzen du absentismoaren eta sare, maila eta sexu aldagaien arteko elkarreraginari buruzko jarraibide ezagunak errepikatzen direla. Baiezta daiteke hiru eraginak adierazgarriak direla, eta honako hau ondoriozta daiteke: 1) absentismoan eragin handiena duen aldagaia sarea da; 2) sexuaren, mailaren eta absentismoaren arteko elkarreragina dago, baina mailen arabera ez da berdina; eta 3) sexuak eragina du absentismoan, eta mutilak dira absentismo-tasa handiena agertzen dutenak.

Apirilaren 26ko jardunaldian parte hartu zutenek emandako iritzitari dagokionez, honako ondorio hauek bildu dira:

- Ikastetxeak eraldatu beharra, ikasleei erantzuna emateko eta, aldi berean, administrazioak ikasleak beren ezaugarrien arabera modu berezian tratatu ditzan.
- Absentismoaren aurrezaintzan lanean jarraitzearen garrantzia Haur Hezkuntzako etapatik.
- Familiekin hainbat erakundetatik lan egiteko premia, batez ere zaintzako jarraibideei dagokionez (frustrazioaren kontrako erresistentziaren kontrola, mugak jartzea, maitasun-loturak sortzea...).
- Metodologia ikasgeletan aldatu beharra, ikasketa funtzionalen eta esanguratsuen edukien hautaketa baten bidez.
- “Ausentismo” kontzeptu berria sortu da, ikasgeletan egon arren presentzia emozionalik ez dutenak izendatzeko. Ikasgeletan interesik eta motibaziorik gabe dauden ikasleak. Horren aurrean, egoera irauli beharra ere sortzen da, ez bakarrik ikastetxera joateko, baizik eta eskolan parte hartu eta ikasketez jabetzeko lorpenak izateko.
- Sarea lan egin beharra indartzen jarraitzen da, betiere erakunde batek ikasle bat beste erakunde batera bideratzen duenean arreta jarrita, zertarako-eta, balorazioa amaitzen ez

den bitartean, adingabearekin esku hartzen jarraitzeko.

- Azkenik, ikastetxeen, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen eta haurren zerbitzu espezializatuen jardun onak partekatu beharra azpimarratzen da.

Arazo honek Bizkaian 2017-2018 ikasturtean izan duen dimentsioari buruz honako ondorio hauek eskaintzen dira:

- Portaera absentista duten eta eskolagabetuta dauden ikasleen guztizko kopurua 1.870 izan da (Oinarrizko Irakaskuntzako ikasleen % 1,7).
- Kopuru horrek berdintsu eutsi dio iazkoaren aldean (22 kasu gehiago azkenean), ehuneko berari eusten baitzaio. Dena den, ikasturtean zehar pilatutako absentismoa kontuan hartzen ez badugu, anekdotikoa edo berezia izateagatik % 10etik beherakoa denean, kopurua 788 (oinarrizko irakaskuntzako ikasleen % 0,7).
- Ikastetxe publikoetan Lehen Hezkuntzako ikasleen % 2,7k eta DBHko ikasleen % 3,9k portaera absentista izan dute.
- Ikastetxe pribatu itunduetan portaera hori izan duten ikasleen portzentajea % 0,4 izan da Lehen Hezkuntzan eta % 0,7 DBHn.
- Ikasturtean Lehen Hezkuntzan metatutako portaera absentista aztertuz gero, portzentajerik handiena % 25erainoko tartean kokatzen da. Hau da, ikasturtean Lehen Hezkuntzan ikastetxe publikoetako ikasleen % 83,8k galdutako eskola-egunek eta ikastetxe pribatu itunduetako ikasleen % 75,2k galdutakoek ez dute gainditzen bakoitzaren urteko eskola-aldiaren kopuru osoaren % 25. Gainera, ikastetxe publikoetako ikasle horien % 66,4 10etik beherako tartean sartzen dira, hots, ohikoa ez den absentismoaren tartean. Ikastetxe pribatu itunduetan ikasleen % 53,2rekin gertatzen da hori.
- DBHn, absentismoko portzentajerik handiena ere (% 76,2 ikastetxe publikoetan eta % 66,1 ikastetxe pribatu itunduetan) % 25erainoko tartean biltzen den arren, apalagoa da Lehen Hezkuntzako datuen aldean. Etapa horretan, ikastetxe publikoetako ikasleen % 52 eta ikastetxe pribatu itunduetako ikasleen % 41,1 % 10etik beherako tartean sartzen dira.
- “Absentismo zuzendua”ri dagokionez, hau da, apirilean, maiatzean eta ekainean gutxienez erregistrorik ez egoteari dagokionez, ikastetxe publikoetan Lehen Hezkuntzako ikasleen % 49,6 absentistak izan dira eta DBHko ikasleen % 41,3; ikastetxe pribatu itunduetan, aldiz, ikasleen % 54,6 Lehen Hezkuntzan eta % 38,7 DBHn. Azken datuok arazoaren dimentsio zehatzago baten aurrean jartzen gaituzte. Hala, absentismorik larrienak, ikasturte osoan irauten duenak, Lehen Hezkuntzako 507 ikasleri eragiten die (% 0,7) eta DBHko 464ri (% 1,2). Guztira, Oinarrizko Irakaskuntzako 2.010 ikasleri (% 0,9).
- Haur Hezkuntzan, ikastetxe publikoetako ikasleen % 2,1ek izan dute portaera absentista, eta % 0,2k ikastetxe pribatu itunduetan.
- Portaera absentista handiagoa da ikastetxe publikoetan (Lehen Hezkuntzan % 2,7 eta DBHn % 3,9) ikastetxe pribatu itunduetan baino; horietan Lehen Hezkuntzan % 0,4 dute eta DBHn % 0,7. Alde horrek erlazio estua dauka ekonomian, familian, gizartean

edo kulturaren baztertua egonik ikastetxe batzuetan edo besteetan eskolatzen den biztanleriaren portzentajearekin. Orokorrean gehiago dira sare publikoan, eta, nolahi ere, desberdina da bakoitza kokatuta dagoen eremuaren arabera. Izan ere, ikasle absentistak ez dira banatzen era proportzionalan Lurralde osoan. Aitzitik, bi eremuk (Ikuskaritzako 3. eta 4. eremuek) biltzen dituzte ikasle horien % 89,3, eta oso adierazgarria da 3. eremuari dagokion portzentaje handia (% 57.7).

- Absentismo arazoak dituzten ikastetxeak ikastetxe publikoen % 70 eta ikastetxe pribatu itunduen % 56,8 izan dira. Baldin eta ikasle absentisten kopurua 6 edo gehiago delako irizpidea badarabilgu, ikastetxe kaltetuen portzentajea ikastetxe publikoen % 35,6 eta ikastetxe pribatu itunduen % 15,7 dahoriek absentismoaren eta eskolagabetzearen mapa zehatza marrazten dute eremuz eremu:
 - Bizkaian kaltetutako eremuak, batik bat, lehenago esan den bezala, Ikuskaritzako 3. eta 4. eremuak dira. Zehatzago esanda, Bilboko auzo jakin batzuei (Otxarkoaga, Zazpi Kaleak, San Frantzisko, Zabala...) eta Basauri, Barakaldo, Portugalete, Santurtzi eta Sestao udalerritako zenbait auzori dagozkie.
- Detektatu diren eta era positiboan bideratu ez diren kasuen % 76,1 ikastetxeetatik Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetara edo beste udal zerbitzu batzuetara bideratu dira. % 0,9 Foru Aldundiko Haurren Zerbitzu espezializatueta bideratu dira, eta % 2,7 Fiskaltzara (Adingabeen Fiskaltza).
- Azkenik, zera azaldu behar da aurten ere: arazo honek eskola-populazioaren zati txiki bati eragiten dion arren, gauza batzuk ez ditugu ahaztu behar:
 - 1.- 6 urtetik 16ra bitarteko ikasleei eragiten die (zenbaki absolutuetan, 1.870i) edo kasu honetan 788ri, aurreko ikasturtean % 10etik beherako absentismoa izan duten ikasleak kontatzen ez baditugu. Haur eta nerabe horien derrigorrezko eskolatzeara da gizarteak hezkuntzarako eskubidea bermatzeko ezarri duen mekanismoa, eta mekanismo hori ez da benetan gauzatzen ari.
 - 2.- Prebentzioz eta era sintomatikoan ez jokatzeak, familien gainean esku hartu behar duten Botere Publikoen erantzukizuna bete ez izana adierazteaz gainera, etorkizunean gizarte bazterketa eragiten duten arrazoi egiaztatuetako bat ez ezabatzea dakar.

8 HOBETZEKO PROPOSAMENAK

Batzordeak kontuan hartu ditu jardunaldian jaso diren iritziak, gure ingurune hurbilean eta beste errealitate batzuetan aplikatzen diren irtenbideak eta prozesuari buruz berak egin duen balorazioa. Horrenbestez, beharrezkotzat jo da hobetzeko honako proposamen hauek aurkeztea, haietariko asko iragan ikasturteetako txostenetan daudela; izan ere, arazo honen adierazpenik larrienen murrizketan bilakaera positiboa egiaztatu arren, absentismo erregistroen kopuruak gora egiten jarraitzen du.

- Behin ikastetxeei eskatzen zaien bertaratze kontrola lortuta, horiei eskatzen zaie ahaleginak egiten jarraitzea ikasleak eta haien familiak erakartzeko eta ikasleei neurri bereizgarri egokien bidez erantzuteko.
- Ikasleentzako erakargarriak diren ikaskuntza proposamenak planteatzeko ere eskatzen zaie ikastetxeei, ikaslea ikasgelan egoteko bakarrik ez, baizik eta parte hartu eta ikastea lor dezan.
- Gainera, gogora ekarri behar da ikastetxeak erabaki behar dituela hutsegiteak justifikatzeko edo ez justifikatzeko irizpideak, eta horiek tutore guztiek aplikatu behar dituztela modu berean.
- Halaber, parte hartzen duten eragile guztiei (irakaskuntza taldeak, gizarte taldeak eta zerbitzu espezializatuak) eskatzen zaie kasua antzeman eta/edo bideratu ostean berehalako eta koordinatutako esku-hartzea egin dezatela, diziplinarteko ikuskerak biltzen dituzten benetako laguntza-sareen eraikuntzan aurrera eginda.
- Esku-hartze bereziak egin beharra defendatzen jarraitzen dugu, esku-hartze horiek, alde batetik, bereziki kaltetua dauden eremuak eta ikastetxeak eta, beste aldetik, kasu bakoitzaren banakako azterlana kontuan hartuko baitituzte. Nolanahi ere, lehentasuna eman behar zaie adinik txikienak dituztenei, eta arreta berezia jarri behar da Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzako lehenengo zikloan.
- Eskola-absentismoan eta eskolagabetzean esku hartzeko protokolo berriarekin batera abiarazitako neurri berriak mantenduko dira, eta, beraz, honako hau egin beharko da, beste gauza batzuen artean:
 - Berehala jardungo da (lehen hiruhilekoan) Lehen Hezkuntzako lehenengo mailan detektatzen diren kasuetan, are gehiago Haur Hezkuntzako 5 urteko mailan portaera absentistarik izan bada.
 - Prestasunez esku hartuko da Lehen Hezkuntzako etapatik Derrigorrezko Bigarrenera iragatean, eta esku-hartzea eta jarraipena bermatuta egongo dira harik eta haur eta nerabeen eskola-egoera normaldu arte.

Parte hartzen duten profesional guztiek azaroaren 8ko 230/2011 Dekretuaren bidez onetsitako BALORA tresnaren eskakizunak aplikatu beharko dituzte, maiatzaren 9ko 152/2017 Dekretu bidez eguneratu dena.

- Halaber, Oinarrizko LHn sartzen diren 15 urteko ikasleekin lehentasunez jardun behar da.

- Aurten ere, Batzordeak berriro oso modu positiboan baloratu ditu eragile eta erakunde batzuek eta besteek egindako ahaleginak, komunikazioa eta esku-hartze koordinatua hobetzeko programaren aplikazioko hamabosgarren ikasturte honetan. Gainera, Hezkuntza Sailaren “Notak eta Faltak” aplikazio informatikoa aurreko ikasturtean abiarazteak eragin du, hil bakoitza amaitutakoan, ikastetxe guztiek (absentismoa izan dutenak zein ez) aplikazio informatiko hori bete behar izatea, horrek aurretik erabiltzen ziren prozeduren gaineko kontrola hobeto bermatzea ekarri duela. Alabaina, oraindik ere azpimarratu behar da epeak errespetatu behar direla programaren barruan dauden esku-hartzeetan.
- Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzaren eta Adingabeen Fiskaltzaren arteko topaketak sustatu behar dira, Fiskaltzara eta dagokion agintari judizialera eramandako kasu bakoitzaren eboluzioa elkarrekin aztertzen jarraitzeko.
- Haurrak eta Nerabeak zaintzeko eta babesteko otsailaren 18ko 3/2005 Legean ageri diren EAEko Administrazio publikoen jarduera-printzipioei erantzunez eta beren eskumenak erabilita eta, zehatzago, lege horren 5., 7. eta 41. artikuluetan azaltzen denari dagokionez, Hezkuntza Sailaren eta, absentismoko erarik larrienak zein auzotan gertatzen diren, auzo horiei dagozkien Udalen artean lankidetzako hitzarmenak sinatzea proposatzen da berriz. Hitzarmen horiek arazo hori gehien jasaten duten eremu eta ikastetxeetako gizarte- eta hezkuntza-dimentsioa batera lantzeko berariazko giza baliabideak izendatzeko oinarria izango lirateke.
- Batzorde honek onartzen jarraitzen du Hezkuntza Sailak abian jarritako neurriak, bereziki Hamaika Esku programa eta DBHko neurri bereizgarriak, izan daitezkeela absentismo erregistroak murriztu izanaren azalpena. Horregatik, nabarmendu nahi du Ikastetxeen Zuzendaritzak eta Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendaritzak ekimenak (adibidez, jada aipatu ditugunak) bultzatzen jarraitu behar dutela.
- Aurreko proposamena sendotu nahian eta Sarrerak Bermatzeari eta Gizarteratzeari buruzko abenduaren 23ko 18/2008 Legearen 79.3 artikuluan ezarrita dagoena aplikatze aldera, plan bereziak prestatzea proposatzen jarraitzen da auzo-, udalerrri-, eskualde- edo bestelako geografia-eremuetarako, baldin eta, bereziki degradatuta daudelako eta pobrezia- eta bazterkeria-tasa handiak dituztelako, epe laburrean edo ertainean ekintza integrala behar badute. Proposamen hori txosten honetan azaltzen diren auzo eta udalerrietako batzuetarako zehazten da.
- Scriven-ek zera esaten zuen: “Hobetu ahal izateko ebaluatu beharra dago”. Hezkuntza-zein gizarte-esparruan, abian jarriko diren politika eta estrategiak ebaluatu egin beharko dira errealitate eta eraginkortasunari egokitu izana egiaztatze aldera. Hortaz, erakundeek eskola-absentismoa ezabatze aldera abian jarritako politika, estrategia eta esku-hartzeak ebaluatzea proposatzen da. Zentzu horretan, truke, azterketa eta laguntza taldeak prestatzea gomendatzen da, eta horietan, irakasleek, Berritzeguneko aholkularitza enpresek, Hezkuntzako Ikuskapenak, ISEI-IVEIk, Gizarte Zerbitzuen profesionalak eta EHUK parte hartzea eskatzen da, arazoak identifikatzeko eta irtenbideak bilatzeko.

9 ESKER ONA

Hobetu beharreko elementu asko aurkitzen diren arren horiek txosten honetan jaso dira eta eskola absentismoko arazoa guztiz konpondu ez den arren, Jarraipen Batzorde honek, Programa aplikatzeko hamalau ikasturteotan, profesionalak eta Erakundeek programa gauzatzeko ahalegin handia egin dutela ikusi ahal izan du. Bereziki azpimarratzen da lan handia egin dela absentismoa eta eskolagabetzea detektatzen, jasotako informazioa tratatzen eta arazoa aztertzeke ekimenak abian jartzten, ekimen horien ardatza “haur eta nerabeen interes gorena” dela. Era berean, parte hartzen duten erakunde eta profesionalen koordinazioan egindako urrats garrantzitsuak azpimarratzen dira.

Hemendik bihoa gure esker ona.

Bilbon, 2018ko azaroaren 14an

JARRAIPEN BATZORDEA

Osabide Hezkuntzarako Partzuergoa:

- Jesús Fernández

Hezkuntza Saila

- Ángel Acebo
- Ana Alonso
- Inmaculada Cereceda

Bizkaiko Foru Aldundia

- Alazne Madinabeitia
- Nuria Pajares

EUDEL

- Ainara Bergaretxe
- Dorleta Goiburu
- Manuela González
- Javier Ruiz

9.1 .ERANSKINA

DATUEN BILAKAERA AZKEN URTEETAN

IKASTURTE AK	ABSENT.+ OIN. HEZ. ESKOLAG.	ABSENTISMOA HAUR HEZK.	IKASTETE KALTETUAK > 6 kasu		FISKALTZARA IGORTZEA
			PUBLIKOAK	PRIBATU ITUNDUAK	
2003-2004	1.074 (%1,2)	201 (%0,76)	38 (%15,1)	6 (%4,4)	8 (%0,63)
2004-2005	1.133 (%1,3)	197 (%0,72)	39 (%15,5)	5 (%3,6)	28 (%2,5)
2005-2006	1.135 (%1,3)	257 (%0,91)	41 (%16,3)	5 (%3,6)	29 (%2,5)
2006-2007	1.106 (%1,2)	239 (%0,82)	44 (%17,5)	9 (%6,6)	30 (%2,6)
2007-2008	1.405 (%1,5)	300 (%0,99)	50 (%19,8)	14 (%10,2)	41 (%2,9)
2008-2009	1.319 (%1,4)	330 (%1,06)	54 (%21,1)	14 (%9,9)	52 (%3,9)
2009-2010	1.475 (%1,5)	328 (%1,04)	52 (%20,3)	10 (%7,1)	59 (%4)
2010-2011	1.484 (%1,5)	445 (%1,4)	50 (%19,5)	11 (%7,8)	65 (%4,4)
2011-2012	1.602 (%1,6)	501 (%1,6)	52 (%20)	11 (%7,7)	141 (%9)
2012-2013	1.703 (%1,7)	610 (%1,9)	64 (%24,6)	15 (%10,6)	167 (%9,8)
2013-2014	1.596 (%1,5)	583 (%1,8)	67 (%25,8)	18 (%12,7)	87 (%5,4)
2014-2015	1.685 (%1,6)	614 (%1,9)	73 (%28,1)	24 (%16,9)	43 (%2,5)
2015-2016	1.705 (%1,6)	472 (%1,1)	85 (%36,8)	18 (%12,5)	66 (%2,9)
2016-2017	1.848 (%1,7)	458 (%1,1)	78 (%33,8)	21 (%14,6)	44 (%2,3)
2017-2018	1.870 (%1,7)	470 (%1,2)	82 (%35,6)	23 (%15,7)	51 (%2,7)

Aurreko taulak argi eskaintzen digu datuen bilakaera jarraipen horretan jardun izan duten hamahiru ikasturteetan. Ikasturte honetan gora egin dute Oinarrizko Hezkuntzako absentismoak, eta behera egin dute, berriz, Haur Hezkuntzakoak. Dena den, absentismo ez ohikoa edo aldizkakoa kenduta, absentismorik larrienak behera egin du nabarmen, eta 764 kasu egon dira Oinarrizko Hezkuntzan.

ABSENTISMO ZUZENDUA

Absentismo zuzenduari dagokionez, esan behar da hurrengo taula honek bilakaera osoa jasotzen duela 2004-2005 ikasturteaz geroztik; izan ere, datu hori ez zen jaso 2003-2004 ikasturtean.

	IKASTETXE PUBLIKOAK		IKASTETXE PRIBATU ITUNDUAK	
	LEHEN H Absentismo zuzendua	DBH Absentismo zuzendua	LEHEN H Absentismo zuzendua	DBH Absentismo zuzendua
2004-2005	%42	%49	%57	%44
2005-2006	%42,4	%44	%52,5	%34,6
2006-2007	%63,4	%55,1	%67,5	%59,4
2007-2008	%47,1	%48	%48,4	%39
2008-2009	%44,1	%43,8	%65,1	%46
2009-2010	%46,6	%41,8	%43	%45,2
2010-2011	%49,5	%53,4	%70,2	%49,6
2011-2012	%53,6	%50,2	%59,8	%52,9
2012-2013	%58,7	%47,4	%59,3	%51,3
2013-2014	%52,7	%42,4	%63,7	%43,7
2014-2015	%56,7	%49,55	%55,6	%47,3
2015-2016	%52,1	%44,1	%3,8	%23,6
2016-2017	%72,4	%64,6	%79	%71,7
2017-2018	%49,6	%41,3	%54,6	%38,7

Taula horretan ikus daitekeenez, ikasturte honetan ikastetxe publikoetako eta ikastetxe pribatu itunduetako bi etapetan zuzendu diren kasuen ehunekoa aurrekoan baino txikiagoa izan da.

AZKEN TARTEAN METATUTAKO ABSENTISMOA

Jarraian azken tartean metatutako absentismoaren bilakaera jasotzen da (ikastetxera ikasturteko eskola-egunen % 75en baino gehiagotan joaten ez diren ikasleen portzentajea jasotzen du), informazio hau jaso den hamalau ikasturteetan.

	IKASTETXE PUBLIKOAK		IKASTETXE PRIBATU ITUNDUAK	
	LEHEN HEZKUNTZA %75 eta % 100 arteko absentismoa	DBH %75 eta % 100 arteko absentismoa	LEHEN HEZKUNTZA %75 eta % 100 arteko absentismoa	DBH %75 eta % 100 arteko absentismoa
2004-2005	%6,5	%17,1	%6,8	%24,6
2005-2006	%6,6	%19	%15,6	%15,5
2006-2007	%4,9	%10,5	%1,3	%5,9
2007-2008	%2,9	%9,5	%3,2	%14,2
2008-2009	%7,4	%12,6	%4,5	%11,7
2009-2010	%2,7	%10,3	%3,1	%12,8
2010-2011	%2,6	%9,1	%2,3	%15,9
2011-2012	%1,6	%4,6	%1	%5,7
2012-2013	%1,4	%2,8	%2,6	%5,3
2013-2014	%2,4	%6,5	%0,9	%9,2
2014-2015	%1,6	%3,1	%1,6	%3,8
2015-2016	%1,07	%2,3	%2,8	%2,05
2016-2017	%2	%4,9	%1,7	%5,4
2017-2018	%2,8	%4,7	%4,9	%4,2

Aurreko taulak jakinarazten du arazoaren dimentsiorik larriena (ia ikasturte osoan irauten duenean) nabarmen murriztu dela ikasturte honetan aurreko ikasturtearekin alderatuta, ikastetxe pribatu itunduetako Lehen Hezkuntzan izan ezik. Kezkatzen du handitzea, hala ere, azken tarte horretan zenbaki txikietan dauden aldaketek neurri handian aldatzen dituzte ehunekoak. Hala ere, datu horiek esanguratsuagoak dira guretzat ikasturtearen zati handi batean jokabide horri eusten dioten ikasle absentisten ehunekoa delako.

9.2 II. ERANSKINA

BIBLIOGRAFIA

ALMARAZ, A; MIGUEL, JJ (2018). Dinamización de la jornada de absentismo de Bizkaia. “Abordar el absentismo en el marco de una escuela inclusiva”.

<http://www.cecobi.hezkuntza.net/web/guest/curso-2017-2018>

CASPE, M., LÓPEZ, M. eta WOLOS, C.(2007). *Family involvement makes a difference.2, winter 2006/2007.* Cambridge:Harvard Family Research Project, HarvardGraduateSchool of Education.

DEARING, E., KREIDER, H., SIMKINS, S., eta WEISS, H.B.(2006). Family involvement in school and low-income children’s literacy performance:Longitudinal associations between and within families.*Journal of Educational Psychology, 98, 653-664.*

DELORS, J.(1996). *La educación encierra un tesoro.*Madril.Santillana, Ediciones Unesco.

DRIESSEN, G., SMITH, F. y SLEEGERS, P. (2005). Parental Involvement and Educational Achievement.*British Educational Research Journal, 31(4) 509-532.*

FERREIROS, C.E.(2011). *Defensa del derecho a la enseñanza obligatoria:el papel del ministerio fiscal.*Madrid.Fundación AEquitas.

FLECHA, A.eta beste batzuk.(2009). Participación en escuelas de éxito:una investigación comunicativa del proyecto Includ-ed.*Cultura y Educación, 21(2), 183-196.*

GARCÍA, M. (2009). “Absentismo y Abandono Escolar.Algunas claves para el desarrollo de intervenciones integradas en el marco de una escuela inclusiva y del territorio”.Bolívar, A (koord): Absentismoa eta eskola uztea.Politika eta jardun onak.Escuela monografikoa

GONZÁLEZ, M.T.(2006). Absentismo y abandono escolar:una situación singular de la exclusión educativa.*REICE.Revista Electrónica Iberoamericana sobre Calidad, Eficacia y Cambio en Educación, 4 (1), 5-27.*

GONZÁLEZ, M.T.(2014).Absentismo escolar:posibles respuestas desde el centro educativo.*REICE.Revista Electrónica Iberoamericana sobre Calidad, Eficacia y Cambio en Educación, 12 (2), 5-27.*

HEDIBEL, M.E.*REICE.Revista Electrónica Iberoamericana sobre Calidad, Eficacia y Cambio en Educación, 3. bol. 1 z.k.*

HESS, R.S., MOLINA, A.M y KOZLESKI, E.B.(2006). Until Somebody Hears Me:Parent Voice an Advocacy in Special Educational Decision Making.*British Journal of Special Education* 33(3) 148-157.

LONGÁS MAYAYO, J.(2015). Bizkaiko absentismoari buruzko hitzaldian:“Acompañamiento educativo en entornos de complejidad.Trabajo en red y colaboración interinstitucional para la mejora del éxito escolar”.

<http://www.cecobi.hezkuntza.net/web/guest/curso-2014-20151>

MARTÍNEZ, J.L.(2009). *El absentismo en la escolaridad obligatoria.Etiología del problema y caracterización socio-educativa del alumno absentista*. Doktorego tesia.Gaztela-Mantxako Unibertsitatea.

MERRY, M. (2005). Social exclusion of muslim youth in flemish and french speaking Belgian schools.*Comparative Education Review*, 49(1), 1.

RÚE, D. AMELA, M. y BUSCARONS, M. (2003). *El absentismo escolar como reto para la calidad educativa*.CIDE.Hezkuntza Ikerketako Bigarren Saria.Bartzelona.

SÁNCHEZ GUERRERO, M.E.(2014). Hitzaldia Bizkaiko absentismoari buruzko jardunaldian.“Intervención desde la comunidad”.

<http://www.cecobi.hezkuntza.net/web/guest/129>

SANTOS GUERRA, M. A.(2012). *La escuela que aprende*.Madril.Ediciones Morata.

SANTOS GUERRA, M. A.(2013). Hitzaldia Bizkaiko absentismoari buruzko jardunaldian:“La escuela que aprende”.

<http://www.cecobi.hezkuntza.net/web/guest/ano-2013>

UBIETO, J.R.(2016) Hitzaldia Bizkaiko absentismoari buruzko jardunaldian:“Estrategias de trabajo colaborativo en la coordinación interinstitucional.La experiencia de Interxarxes (2000-2015)”

<http://www.cecobi.hezkuntza.net/web/guest/curso-2015-20161>

EUROPAR BATASUNA, (2010). Batzordearen Jakinarazpena.Europa 2020 “Una estrategia para un crecimiento inteligente, sostenible e integrador”.Brusela.

VAELLO ORTS, J (2017). Hitzaldia Bizkaiko absentismoari buruzko jardunaldian.“Estrategias para el rescate de alumnado en riesgo de abandono escolar:respuesta del sistema educativo y de la institución escolar.

<http://www.cecobi.hezkuntza.net/web/guest/curso-2016-2017>

VÁZQUEZ GONZÁLEZ, C.(2013). Eskola-absentsimoaren ondorio juridiko penalak.*Revista Avances en Supervisión Educativa*,18 zk., 2013ko maiatz-a.